hiruka

159. zenbakia
2020ko ekaina

COVID-19 Pandemiagaz batera bizitzen

Normaltasun berrirako prestatzen

hiruka

HIRUKA kooperatiba elkartea

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefonoa: 944 911 337
Publizitatea: Maria Gorostiola
Erredakzioa: Unai Brea, Iker Rincon Moreno, Hodei Torres
Diseinua: Artefakto
Administrazioa: Ziortza Merino
Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Asier Barruetabeña, Eunate Muruaga, Izei Azkue, Iñaki Libano, Nerea Garcia
Filmazioa eta Inprimategia: Comeco Gráfico
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 5.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak

Getxo · Leioa · Erandio Elizateko Udala
Berangoko Udala · Plentziako Udala · Gorliko Udala
Urduliko Udala · Barrikako Udala · Lemoiko Udala

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua.

Tokiko merkatarien egoera

4

Aurkibidea

4 **Zelan bizi izan dute merkatariek konfinamendua?**
11 **Kolonbiatik aberriratzeko ahalegina**
12 **Hizkuntzaren zalantzategia**
13 **Historiaren ganbara**
14 **Hasi eta hazten jarraitu**
15 **Gatz-ozpinetan**
16 **Hirudika: konfinamendua arintzeko faseek utzitakoak**
22 **«Auzo denetan dagoen osasun-agentea da Farmazia»**
24 **«Txaloak, orain, mobilizazio bihurtu behar dira»**
32 **Zelan egin aurrera kirolean eta kultura munduan?**
36 **Musikhariak: soinu- eta argi-teknikarien egora**
38 **Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak**

22

«Farmazia ere osasun-agente bat da»

ari begira

Deskonfinamenduak utzitakoak

16

32

Naiomi Matthews, borrokalaria. Kideakaz entrenatu ahal izateko zain

36

«Teknikarion lan-baldintza prekarioak agerian geratu dira»

Koronabirusak kinka larrian utzi gaitu; gizartea eraldatu du eta oraindino etorkizuna zelakoa izango den asmatzea ezinezkoa egiten zaigu. Bitartean, «normaltasun berrira» egokitzen hasi gara konfinamendua arindu ahala. Martxa ezberdinetan bada ere, apurka eskualdeko komertzioak lehengoratzen hasi dira. Ezagut ditzagun hainbat kasu.

Adrián Vila Plentziako Merkatarien Elkarteko presidentea

«Tokikoa babestu behar dugu»

Dendari askok lokalak giltzapetuta mantendu behar izan dituzte bi hilabetez, gutxienez, COVID-19aren pandemia dela eta; beste askok, aldiz, ziurgabetasun handiz zabaldu ahal izan dute. Orain, apurka-apurka normaltasun berri baterako bidean gaudela, denak zabaltzen hasi dira, babes-neurriak aldarrikatzeaz batera.

IKER RINCON MORENO ▶

Plentziako Merkatarien Elkarteko presidentea da Adrián Vila. HODEI TORRES

Tabernari eta dendarien gehiengoak ateak itxi behar izan du konfinamenduak iraun duen bitartean. Zabaldu ahal izan dutenek salmentak mantentzea lortu dute, herritarren babesari esker; beste batzuek bestelako zerbitzuak eskaini behar izan dituzte produktuak jendearengana helarazteko. Horren inguruan berba egin dugu Adrián Vila Plentziako Merkatarien Elkarteko presidenteagaz.

Zenbat komertziok eta establezimenduk osatzen duzue Plentziako Merkatarien Elkartean? 10 ostalarik eta 27 dendarik osatzen dugu elkartea. Gaur egun, elkartekook hiribilduko komertzioen eta ostalaritza-establezimenduen % 30 inguru gara.

Zelan bizi izan duzue konfinamendu-egoera? Bizi izan dugun momenturik txarrenetarikoa dela esango nuke. Komertzio asko itxita egon dira eta bakarrik zabalduta mantendu dira beharrezko gisa izendatuta zeuden zerbitzuak eskaintzen zituztenak.

Denen artean, zenbatek egon behar izan dute pertsiana itxita? Duela gutxira arte gure kideen % 80 inguru egon dira itxita, eta zabaldu ahal izan dutenek oso lan gutxi egin ahal izan dute konfinamenduak ezarritako neurriak zirela eta.

Horren harira, askok euren burua berrasmatu behar izan dute beren zerbitzuak eskaintzen segitu ahal izateko, ezta? Bai, askok etxez etxeko banaketa-zerbitzua jarri behar izan dute martxan. Hori izan da modu bakarra gutxi batzuek euren produktuak saldu eta lan egin ahal izateko.

Daborduko askok zabaldu dituzte lokalak. Zelan bizi izan da une hori? Oraindino ez gaude oso animotsu bi hilabete hauetan itxita egoteagatik bizi izan ditugun galerak handiak izan direlako. Oso arduratuta egon gara osasun-neurriak betetzeko hartu beharreko bideak zeintzuk diren hausnartzeko. Era berean, gure bezeroen jarrera zein izango zen aztertzen ibili gara; izan ere, udan Plentziako biztanleria biderkatu egiten da.

Zein izan da herritarren jarrera komertzio txikiekiko? Ona orokorrean. Zabaldu dutenek salmentak mantendu ahal izan dituzte Plentziako herritarren laguntzari esker.

Etorkizunare beldur zarete? Bai, egoera berriro errepikatzearen beldur gara eta horren ondorioz orain arte izan dugun babesa galtzea edo ahaztea. Tokiko merkataritza babestea eta laguntzea beharrezkoa da aurrera egin ahal izateko.

Gehienak itxita

«Duela gutxira arte gure kideen % 80 inguru egon da itxita eta zabaldu ahal izan dutenek oso lan gutxi egin ahal izan dute»

Berrasmatu

«Establezimendu askok euren burua berrasmatu behar izan dute produktuak saldu ahal izateko, hala nola etxez etxeko salmenta»

Etorkizuna

«Tokiko merkataritza babeste eta laguntzea beharrezkoa da aurrera egin ahal izateko»

Unerik gogorrenean itxita mantendu behar izan duten komertzioek laguntzarik jaso dute Udalaren edo bestelako erakunderen baten partetik? Bai, hasiera-hasieratik Plentziako Udalak lagundu eta aholkatu gaitu. Behar izan dugun informazioa izan dugu uneoro eta komertzioak berriro aktibatzeko plan bat garatzeko lanean dihardugu orain.

Horrez gainera, beste hainbat ekimen bideratu dituzue Udalagaz batera, hala nola maskarak banatu eta zabalik egon diren establezimenduen karta osatu. Zelan bideratu da hori dena? Bai, genituen premiazko beharrak zeintzuk ziren galdetu zigun Udalak eta horiei erantzun ahal izateko ekimenak bideratu ditugu hilabete bi hauetan, konfinamenduak eta larrialdi-egoerak utzi ahala.

Udako jaiak bertan behera geratu dira. Zelan hartu duzue erabaki hori? Bizi dugun egoera zein den ikusita, logikoa dela uste dugu. Hala ere, udalerria aktibatzeko bestelako alternatibak bilatzen gabiltza.

Zelakoa uste duzue izango dela komertzio txikien etorkizuna Plentzian? Eragile askok baldintzatuko dute etorkizuna; hala ere uste dut baikorra izan eta denon onurarakoa izan daitekeen bidea hartu behar dugula. Interes indibiduala baztertu behar dugu. Aurrera egiteko ezinbestekoa da denon batasuna. ◀

Axel Calvín eta Arantxi Bilbao Tabernariak

«Seguru geunden Gabonak arte itxita egongo ginela»

Sopelako Elizpe tabernako ugazabak dira Arantxi Bilbao eta Axel Calvín ama-semeak. Ostalari denak legez, konfinamendua arintzeko baldintzek ekarritako lan-molde berrietara ohitzen dabiltza, azaldu digutenez. Besteak beste, arauak betearazteak ematen duen lan gehigarria aipatu dute.

TESTUA: **UNAI BREA** ARGAZKIA: **HODEI TORRES** ▶

Konfinamendu osteko itzuleran lan aldetik oso ondo dabiltzala diote Axel Calvínek eta Arantxi Bilbaok.

Sopelako taberna gehienek legez, ez zituzten ateak zabaldu horretarako aukera eman zitzaien lehenengo egunetik, baldintzak onenak ez zirelakoan. Izan ere, lanerako kondizio hobeak eskatuz talde bat eratu zen herrian. «Baina pare batek zabaldu egin zuen hala ere, eta baten bat ez zen oso ondo portatu gainera», dio Axel Calvínek; «hori, eta lagunek zabaltzeko eskatzen zidatela ikusita, astebete geroago martxan jartzea erabaki genuen, aurreikusita genuena baino egun batzuk lehenago».

Zelakoa izan da itzulera? Ona oro har. Jakina, terraza handia dugulako merezi digu, eta eguraldia oso ona izaten ari delako, bestela beharbada ez... Esan beharra dago ere Udalak ez digula kasu handirik egin, guk joan behar izan dugu galdetzera. Hori bai, haiek esan ziguten terraza ipini ahal genuela, baina ondo barreiatuta.

Izan ere, ezohiko egoera honetan terrazak ohi baino zabalagoak izateko ordenantzak onartu dituzte hainbat udalek; Berangok eta Erandiok esate baterako. Sopelak ere bai? Ez, hemen ordenantzarik ez da egon, baina ahoz eman digute baimena normalean debekatuta ditugun lekuetan mahaiak eta aulkiak ipini ahal izateko. Eskertzekoa da.

Kolpe handia eman dizue konfinamenduak? Bai. Gogorra izan da, zer egingo ote genuen pentsatzen eta kalkuluak egiten egun osoan, noiz irekiko genuen jakin gabe. Geneukan ia janari guztia bota behar izan genuen, gainera. Bitartean, sare sozialen bidez tabernaren propaganda egiten ibili gara, bueltatzeko momentuari begira. Egia esateko, une batean seguru geunden Gabonak arte egongo ginela itxita. Akabo uda, jaiak... Eta bestelako lanen bila ibili da Axel, banatzaile modura edo. Orain, berriz, uste dugu Gabonetarako lehengora bueltatu ahal izango garela, baikorrak gara.

Asko aldatu da lan egiteko era? Hasteko, jendea gehiago itxaroten ohitu da, adinekoren bat izan ezik, horiek burugogorragoak izaten dira, kar kar. Orain ez dago kafe bat presaka eskatzerik. Beharbada 3. fasean bai, baina momentuz... Bestalde, guretzat nekagarriagoa da. Egun batean, jakin-minez, erlojuarekin kalkulatu nuen zenbateko distantzia egin nuen lanean [dio Axelek], barratik terrazara etengabeko joan-etorrian; 17 kilometro, goiz batean! Horri gehitu behar zaizkio etengabeko garbiketa eta kontrolatzaile-lana geure gain hartu beharra, distantzia eta beste arauak mantentzen direla bermatzeko, komunera sartu nahi dutenei baimena emateko, eta abar. Ez da erraza, beti ez dakizu beste aldekoak zelan hartuko duen. Baina esan beharra dago. Guretzat isuna handiagoa da bezeroarentzat baino. Bilbon taberna bati 3.000 eurokoa ipini zioten. Ez da txantxetarako kontua.

Baikortasuna

«Uda osoa galdutzat eman genuen, eta orain berriz, uste dugu Gabonetarako lehengo egoerara bueltatuko garela, baikorrak gara»

Gelditu barik

«Egun batean kalkulatu nuen zer distantzia egin nuen terraza eta barraren arteko joan-etorrian: 17 kilometro goiz batean!»

Terraza bakarrik zabalduta, diru-sarrerek behera egin dute? Esan beharra dugu guk ez dugula igarri, eguraldia oso ona izan delako. Guk ere uste genuen gutxiago irabaziko genuela baina... Hori bai, lan handiagoa eginez. Hasieran gu bakarrik egon gara. Baditugu neska bi lanean, Enplegu Erregulazio Espedientean egon direnak, eta bat oraindik dago. Bestea, berriz, atzo bueltatu zen lanera [maiatzaren 26an egin genuen elkarrizketa hau], dagoeneko beharra dagoelako.

Betiko bezeroak etorri zaizkizue? Bai, baina horiez gainera badaude asko, Sopelakoak izanda ere, sekula ikusi gabe genituenak. Normalean hemen bizitza sozialik ez duen jendea da, Bilbon lan egiten duena esaterako, eta poteak ere han hartzen dituena. Orain asko etortzen dira, agian ez direlako lanera joaten. Hori ere ona guretzat.

Momentuz ezin da erabili jende askok uki dezakeen ezer: zapitakoak, zotzak gordetzekoa... Kartarik baduzue erakusteko, zelan moldatzen zarete? Guk ez dugu bazkaririk eta afaririk ematen, pintxoak besterik ez. Lehenengo astean sukaldean eduki genituen eta jendeari esaten genion zer zuen aukeran, eurek eskatzeko. Orain barran ditugu eta tabernara sar daitezke ikustera, ukitu gabe noski. ◀

Javi Fontaneda Tabernaria

«Egoera errepikatuz gero ezingo genuke berriro zabaldu»

Gainontzeko sektore askok bezala, kolpe latza jaso du ostalaritzak hilabete biotan bizi izan dugun konfinamendua dela eta. Javi Fontaneda Algortako Goikoa tabernako ugazabak maiatzaren 25ean zabaldu zuen pertsiana berriro, martxoaren 14tik aurrera hura zigilatuta izan ondoren.

IKER RINCON MORENO ▶

2. faseari itxaron behar izan diote Goikoa taberna zabaldu ahal izateko. HODEI TORRES

Apurka-apurka normaltasuna berreskuratzen ari dira egunotan gure herrietako kaleek. Konfinamendua arintzeko maratoian bete-betean gaude eta daborduko komertzioek eta tabernek ateak zabaltzeari ekin diote, martxa ezberdinetan bada ere. Bigarrenen kasuan, terraza zutenak izan ziren 1. fasea hasi bezain laster lehenengoak zabaltzen, denek hautu hori egin ez zuten arren; kalean esertzeko aukera ez zutenek, aldiz, 2. faseari itxaron behar izan diote. Horixe izan da Algortako Goikoa tabernakoen kasua. Terraza izan ezean, establezimenduaren barruan egon ahal izatera itxaron behar izan dute. Edukieraren erdian zabal dezakete, betiere soilik mahaietan zerbitzatuta. «Oraindino ezin dugu barran bertan ezer eskaini, horretarako ekainaren 8ra arte itxaron beharko dugu, gutxienez», azaldu digu Javi Fontanedak, taberna horretako ugazabak, mahai bat desinfektatzen dagoen bitartean. Izan ere, edukieraren mugaz gainera, osasun-segurtasun protokolo bat bete behar dute tabernariek: «Pertsona bat mahai batean esertzen den bakoitzean hura desinfektatu behar dugu aurretik, baita komuna erabiltzen den bakoitzean ere».

Barran oraindino ezin dute ezer eskaini, ezta pintxoak bertan eduki ere, edonoren eskura. Horretarako konfinamendua arintzeko 3. fasea hasten denera arte itxaron beharko dugu, ekainaren 8ra arte aurreikuspenen arabera. Egoera horrek hainbat taberna itxita mantentzera behartu du, horixe delako establezimendu askoren indargunea. «Gure kasuan ere horixe da berezi egiten gaituena, baina edukiera handiko taberna dugunez zabaldu ahal izan dugu. Hala ere, oraindino badaude horretarako aukerarik ere izan ez dutenak», diosku Fontanedak.

Taberna dagoen lekua dela eta Alangoko anbulatorioaren joan-etorriez bizi da. «Joan den eguaztenean hasi ziren medikuak bertan lanean, baina oraindino ez dute aurrez aurreko kontsultarik egiten. Hala, ez da jende askorik pasatzen hemendik». Bitartean, taberna zabaldu zutenetik auzoko jendeak «oso ondo» erantzun duelako oso pozik dagoela dio Goikoakoak. Horrez gainera, futbola noiz hasteko zain dago baita ere, athleticzale amorratua izateaz gainera telebistan futbol-partiduak tabernan ikusteko jendea erakarri ahal izango duelakoan, «San Mamesera joaterik ez dugunez, espero dut tabernetan animatzea».

INORK EZ ZUEN ESPERO. Martxoaren 14an itxi zuten Goikoa tabernako pertsiana, konfinamendua hasi baino egun bi lehenago. Zapatua zen, arrastiko 2-3ak aldera. Iluntzeko 12ak ziren hori egiteko muga. «Denok ipurdi-has harrapatu gintuen egoerak; inork ez zuen espero horrelako arazo baten aurrean egon gintezkeenik», dio Fontanedak. Hasiera batean aste biko kontua izango zela uste zuen tabernariak; hala ere, egunak aurrera egin ahala egoerak luze joko zuela argi izan zuen, «dena kaos hutsa izango zen». Eta hala izan da; hilabete bi eta erdi inguru behar izan da taberna berriro zabaldu ahal izateko. Bitartean, bizi izandako uneak gogorrak izan direla aitortzen du, inolako diru-sarrerarik izan ez duelako. «Maiatzaren 12a izan da lehenengo aldia nire subsidioa kobratu ahal izan dudana; bitartean, Gobernuak horiek kenduko zituela esan zuen arren, martxoko eta apirileko autonomoen kuota ordaindu behar izan dut (maiatzekoa ez diote kobratu). Eskerrak alokairua atzeratu didatela», dio.

2. fasea

«Terrazarik ez dugunok konfinamendua arintzeko 2. fasera arte itxaron behar izan dugu barrualdean jendeari zerbitzatzeko»

Barraren beharra

«Aurreikuspenen arabera ekainaren 8an sartuko gara 3. fasean; orduantxe ahal izango dugu barran zerbitzatzen hasi»

Diru-laguntzak

«Agintariek agindutako laguntzak laster bideratzea espero dugu, ez lau edo bost hilabete barru; orain behar dugu laguntza, ez gerora»

DIRULAGUNTZARIK EZ, MOMENTUZ. Gobernuek hainbat dirulaguntza emango dituztela iragarri dute krisialdia iraun duen bitartean. Getxoko Udalaren kasuari dagokionez, deitoratu du inor ez dela beragaz harremanetan jarri, eta hedabideetan zabaldutako informazioagatik izan duela horien berri. Hala ere, berari dagozkion laguntza denak eskatu dituela azpimarratu du, orain horiek noiz ebatzi eta emango dituzten zain dago, «ez dauka zentzurik lau edo bost hilabete barru horiek ematea, orain gaudelako itolarrian».

NORMALTASUNA, NAHI BAKARRA. Behin taberna zabalduta, hurrengo pausoa normaltasuna berreskuratzea dela dio Fontanedak. Izan ere, atzerapausoa emanez gero eta konfinamendura kondenatuko baligute berriro, horixe azkenengo zartakoa izango litzatekeela uste du: «Lehenengo kolpe honen ondorioz askok ezin izango dute zabaldu; bigarrenean, berriz, orain zabaldu dugunok ezin izango dugu hurrengoan egin». ◀

Consuelo Hernandez Ile-apaintzailea

«Uneren batean pentsatu dut ezingo niola negozioari eutsi»

Erandioztar petoa da Consuelo Hernandez, eta bertan daroatza 33 urte ile-apaintzaile lanean. Maiatzaren 4an bueltatu ahal izan zen lanera, Altzaga auzoaren erdi-erdian duen ile-apaindegian. Besteak beste, bertako herritarrek komertzioari laguntzeko ematen dabiltzan erantzun ona eskertu du.

UNAI BREA ▶

Higiene-neurriak betetzeak lan gehigarri ekarri diela dio Consuelo Hernandezek. HODEI TORRES

Eskualdean gutxinaka-gutxinaka normaltasunera itzuli den milaka negozio-jabeetako bat da Consuelo Hernandez. «Galdu duguna galduta badago ere», berriro zabaldu ostean bezeroek emandako erantzunagaz pozik dagoela azaldu du, «galdutako denbora errekuperatu behar balitz bezala edo».

Krisi honek modu berezian eragin dio zuen sektoreari? Denei bezala, esango nuke. Hasieran noraeza egon zen, nahitaezkoak ginela, ez ginela... Tira, azkenean beste denok bezala, maiatzaren hasierara arte, itxita.

Izan ere, alarma-egoera eta konfinamendua ezarri osteko lehen egunetan berbabide izan zineten sare sozialetan eta abar, Pedro Sánchezek hasieran zabalduko zenutela esan zuela eta. Bai, esan zuten lan egin behar genuela jendeak orraztu beharra zuelako, adinekoek batez ere, eta funtsezkoen multzoan sartu gintuzten. Baina noski, ez geneukan modurik segurtasun-distantzia errespetatzeko, eta presio-talde bat sortu zen. Ondorioz, 24 ordu geroago Sánchezek hasierako ideia aldatu zuen.

Zuk zer gurago zenuen, itxi edo zabaldu? Nik baneukan aurretik erabakita hurrengo astean itxi egingo nuela, alarma-egoerarekin ala gabe, uste nuelako ez neukala segurtasunez lan egiteko kondizio egokirik. Azkenean, egia esanda, hobe izan da derrigorrez itxi beharra, modu horretan denok kobratu ahal izan dugu eta.

Zer iritzi duzu jasotako laguntzez? Uste du zortea izan dudala: autonomoetako kuota batzuk ez dizkidate kobratu, eta jarduera eteteagatiko laguntza kobratzerik izan dut. Langileek, berriz, Aldi baterako Enplegu Erregulazio Espedientearen bidez kobratu dute. Bat bueltan dago, eta bestea oraindik ez, osasun-neurria errespetatu behar baditugu ez daukagulako leku fisikorik denontzat. Jakina, bitartean ez da egon diru-sarrerarik, eta gastuak bai. Uneren batean pentsatu izan dut ezin izango niola negozioari eutsi, egoera luzatuz gero. Alokairua ordaindu beharra neukan, gastuak ez dira desagertzen...

Bezeroakaz harremanik izan duzu ile-apaindegia itxita izan duzun denboran? Jaso dut deiren bat, baina bere kabuz ezin zuen emakume bat orraztera eta burua garbitzera besterik ez naiz joan. Jendeak ez du deitu beldur zelako, adinekoak batez ere. Hasieran baten batek esan zidan bere etxera joateko orraztera, baina gero, egoera ikusita...

Etxeetara joatea

«Benetan beren kasa moldatu ezin zutenak orraztera joateko baimena izan dugu, baina ez da ia beharrik egon»

Egoera berria

«Distantzia-arauak direla eta ezin dut hainbeste bezero hartu; bestalde, lan handiagoa dugu, protokolo guztiak betetzeko»

Joateko baimena bazenuen, edozein kasutan... Bai, benetan beren kasa moldatu ezin zutenengana. Baina azken batean, egoera horretan dagoenak izan ohi du zaintzailerik, eta hark garbitzen dio burua, eta abar. Beraz, ez da ia beharrik egon.

Eta zelakoa izan da itzulera? Batetik, jendea oso ondo portatzen ari da komertzio guztiekin, galdutakoagatik lagundu nahian edo. «Tindatzera etorri naizenez gero, xanpu hau eroateko aprobetxatuko dut«, eta halakoak. Eskertzekoa da, eta alde horretatik esan beharra daukat bueltatu osteko hasiera ez dela txarra izan. Bestetik, distantziari buruzko arauak bete ahal izateko, ezin dut oraindik hainbeste bezero hartu (langile bakoitza bezero batekin egon daiteke, eta ezin da egon beste inor barruan, ez bada tindagaia sikatzeko zain dagoela, edo horrelako zerbait). Eta lan handiagoa dugu, baita gasturen bat ere, protokolo guztiak betetzeko: maskarak, gel hidroalkoholikoak, erabiltzen dugun material guztia desinfektatzea... Horrez gainera, bezero bakoitzari tenperatura hartzen diogu sartzean, derrigorrezkoa ez bada ere. Eta tresna guztiak esterilizatzen uzten ditugu gauero.

Erosoa da horrela lan egitea? Maskarekin azarorik ez. Udalak eman zizkigun, langile bakoitzeko hiru, eta neuk ere erosten ditut. Pantailak ere eman zizkiguten, baina horiek ez ditugu erabiltzen, lausotu egiten baitira, eta ez dago ondo ikusterik. Bezeroak ez daude derrigortuta masara erabiltzera; deserosoa litzateke gure lana egiteko. Distantziari dagokionez, argi dago gure eta bezeroaren artekoa ez dagoela errespetatzerik. ◀

Matar Diop Kaleko saltzailea

«Ekonomikoki latza izan da, hau baita nire lan bakarra»

Uribe Kostako hainbat herritan oso ezaguna da Matar Diop senegaldarra. Tabernaz taberna ibiltzen da egunero, bere salgaiak eskaintzen. Ez du bizimodu samurra, eta are egoera latzagoan utzi du COVID-19 pandemiaren ondoriozko konfinamenduak, diru-sarrera barik geratu da eta.

UNAI BREA ▶

Orain dela bost urte etorri zen Diop Euskal Herrira, 20 zituela. HODEI TORRES

Jarduera nagusia nekazaritza den Senegal barrualdeko herri batean jaio zen Matar Diop, orain dela 25 urte. Bizimodua ateratzea ez zen gauza erraza bere sorterrian, eta horregatik, orain dela bost urte Euskal Herrira etorri zen, beste senegaldar asko bezala, zelan edo hala aurrera egiteko asmoz. Bilbon bizi da, bera bezala saltzaile dabilen erkide batekin batera, baina egunero-egunero hartzen du metroa, eguerdi aldean, Uribe Kostara etortzeko.

Sopelako eta Plentziako tabernetan ibiltzen da gehienbat, saltzaile-lana egiten, eta haren aurpegia oso ezaguna da daborduko inguruan. «Denetik saltzen dut», azaldu digu, «eskumuturrekoak, galtzerdiak, lanparatxoak, diru-zorroak, gerrikoak...». Jende askok ezagutzen duenez, eta askogaz oso harreman ona duenez, aurrera egiteko nahikoa ateratzen duela dio: «Oro har jatorra da hemengo jendea, eta nirekin ondo portatzen dira; leku guztietan dago jende ona eta txarra, baina Euskal Herrikoa ona izan ohi da. Hemen, ezagutzen nautenez, beti erosten didate zeozer, ez asko baina zeozer»

ALARMA-EGOERAGATIK «IZORRATUTA». Konfinamenduak iraun duen bitartean, beste askok bezala, Diopek etxetik irten ezinik ego behar izan du (joan den astean bueltatu zen lanera, maiatzaren 25ean). «Ekonomikoki latza izan da, hau baita nire lanbide bakarra, ez daukat besterik», adierazi du.

Lantzean behin Senegalera itzultzen da, familia baitu han, eta lanik gabeko sasoi honetan ere joatekotan egon dela argitu digu, baina ez du izan aukerarik, «aireportuak itxita daude eta». Dioenez, «oraintxe egoera zaila dugu, ez nik bakarrik, baita nire pisukideak ere, eta ni bezala dabiltzan senegaldar askok». Pandemiaren aurretik behintzat bizimodua ateratzea bazuela dio Diopek, eta orain, konfinamendua amaituta, uda izateak lagunduko diolakoan dago: «Eguraldi ona dagoenean jendea pozik egoten da, gehiago ateratzen da kalera... Errazago saltzen da».

> «Zuek zortzi orduko lanaldiak izaten dituzue, nik egunero-egunero hamabi edo gehiago egiten ditut», dio Matar Diopek.

Bizimodu errazik ez du ordea. «Zuek zortzi orduko lanaldia izaten duzue, baina nik egunero-egunero egiten ditut hamabi inguru, eta asteburuetan gehiago». Hutsik egin gabe etortzen da eskualdera, eta «libre» hartzen duen tarte bakarra bariku goiza izaten da, «etxean otoitz egiteko», musulmana da eta. Beste lan bat topatzea, gaur egun, «oso-oso zaila» dela dio. ◀

Koldo Zelaia Kafe-banatzailea

«Enpresak ziurtatu zigun ez zela lanposturik galduko»

Hamabost urte daroatza kafe-enpresa ezagun bateko banatzaile-lana egiten du Koldo Zelaiak, Sopelan aspalditik bizi den 57 urteko berangoztarrak. Maiatzaren erdialdean itzuli da lanera, tabernak zabaldu ahala. Konfinamendua eta itzulera zelan bizi izan dituen azaldu digu.

UNAI BREA ▶

Konfinamenduaren ostean tabernetako kafe-kontsumoa indar handiz itzuli dela dio Zelaiak. HODEI TORRES

Barakaldotik Castro Urdialesera arte, goizean goizetik Ezkerraldeko tabernetara kafea eta bestelako produktuak eroatea du eguneroko lana Koldo Zelaiak. Koronabirusagatik ezarritako alarma-egoerak bezero barik utzi zuen, eta beraz lan barik. Konfinamenduaren arintzeagaz batera bueltatu ahal izan da beharrera, baina ez lanaldi osoan.

«Konfinamendua ezarri baino egun bi lehenago hasi zen entzuten taberna guztiak itxiko zituztela», gogoratu du Zelaiak, «baina ostalariek, nirekin hitz egin zutenek behintzat, esaten zuten ezetz, zabaltzen ari zen gezur bat zela». Bistan denez, gezurrik ez zen. Pedro Sánchez Espainiako presidenteak alarma-egoera aldarrikatu zuen egun berean, zapatuan, enpresaren posta elektronikoak jaso zuten Zelaiak eta lankideek, astelehenera lanera ez joateko esanez. «Salmenta apur bat mantendu da», azaldu digu, «kafea ere saltzen duten eta itxi ez duten okindegiak hornitu baititugu, baina bidalketa-enpresen bitartez helarazi zaie generoa; ostalaritza hornitzen gabiltzan guztiok zuzenean sartu ginen Alde baterako Enplegu Erregulazio Espedientean (AEEE)».

LANERA BUELTA, MOMENTUZ PARTZIALA. Ondorioz, konfinamendu-garaia etxetik irten barik eman du Zelaiak, beste askok legez. «Egia esan primeran eroan dut hori, kirol apur bat egin dut etxean, eta gainerakoan, alferkerian ibili ahal izateak ez dit kalterik egin, luzeago ere egongo nintzen», dio erdi txantxetan erdi serio. Beste kontu bat da etorkizunarekiko segurtasun eza: «Enpresak ziurtatu zigun inork ez zuela lanpostua galduko eta hala izan da, baina tira, egoera sekula ikusi gabekoa da eta ezin guztiz seguru egon gertatuko denaz».

Egokitzea

«Egoera berri honek luze iraungo du eta tabernek irudimen-ariketa egin beharko dute, sare sozialei etekina ateraz esaterako, edo orain arte gurean oso indar txikia izan duen kafea etxera eroateko aukera sustatuz»

Oraingoz lanera bueltatu dira enpresako banatzaile guztiak, baina ez lanaldi osoagaz. Zelaiak, esaterako, egun erdiko lanaldia du, eta beste erdiari dagokionez AEEEan dago oraindino. «Batzuk %30ko lanaldiagaz bueltatu dira, beste batzuk %80koagaz...», zehaztu du, «diru-sarrerak txikiagoak dira noski, baina...». Ezin aurreikusi noiz izango duten aukera lehengora bueltatzeko. Bitartean, higiene-neurriak betez egin behar dute eguneroko lana: «Gel hidroalkoholikoa dugu bisita eta bisita artean eskuak garbitzeko, baita spray bat ere furgoneta barrutik garbitzeko, Eta denbora guztian maskara eroan behar dugu jantzita». ◀

Iritzia **Hirugarren begia**

Gin-tonic vs zinema-sarrera

NEREA FALAGAN MARTIN Zinemagilea

Orain dela egun batzuk Barrikara joan nintzen. Egun eguzkitsua zen, haize atsegina zegoen eta harkaitzetatik ibiltzea erabaki genuen. Zoritxarrez, buruan nuen irudiak errealitatearekin ez zuen bat egin. Golfo Norteko parkinga kotxez beteta zegoen. Jendea edonon. Amorrua eman zidan. Baina eguraldia eta paisaia ikusita, normala iruditu zitzaidan. Horrenbeste denbora etxean egon ondoren, denok merezi dugu disfrutatzea, ezta? Bi ordu inguruko buelta bat eman ondoren, parkingera bueltatu ginen. Eta harrituta gelditu nintzen. Taberna batean ilara luze bat zegoen. Hogeita piku pertsona. Denak dotore-dotore. Denak «kopa» bat hartzeko zain. Edo «*postureo* argazkia» ateratzeko zain, gero sare sozialetan partekatzeko, noski.

Ondoren Plentziara joan ginen. Egoera berdintsua sumatu genuen: terraza guztiak jendez gainezka. Polita da giro hori ikustea, denok etxean isolatuta egon ostean. Baina, zer gertatzen zaigu herrialde honetan tabernekin? Ez gaude pixka bat obsesionatuta kañekin, pintxoekin eta terrazekin? Konfinamenduaren arintze fase honetatik aurrera, dagoeneko, zenbait museo eta zinema irekita daude. Oso berri ona da kultura eta artea maite ditugunontzat. Ez naiz pilaketen zalea, baina onartu beharra daukat asko gustatuko litzaidakeela kultur eta arte-guneetan ere ilarak ikustea. Ez beti, baina noizean behin...

Maiz, jendearekin hitz egiten dudanean, askok esaten didate zinemara joatea oso garestia dela. Artearen eta kulturaren inguruko ekitaldiak doan eskaintzea ez dago batere gaizki. Halako proposamenen aldekoa naiz. Ezin dugu orokortu, ordea. Sektore honetan lanean gaudenok baditugu trabak eta gure egunerokotasunean, *amor al arte* praktikan jartzen dugu maiz. Tabernari bati ez diogu eskatzen kañaren prezioa jaistea. Egin dezagun gauza bera, beraz, kultur edo arte-langileekin. Nik beti galdera berbera egingo dut: zuk zer nahiago duzu, gin-tonic bat edo zinema-sarrera bat?

Iritzia **Gaia aparkatuz**

Porlanak tapa ezin dituenak

HODEI RODRIGUEZ ARRUTIA Tosun ibilitakoa

Gauza asko tapa ditzake porlanak. Gure inguruan hainbestetan ikusi dugun legez, zementuak lursail emankorrena desagerrarazi, sustrai sakonenak ito eta putzu oparoenak sika ditzake. Badaude, baina, porlanak tapatu ezin dituen zenbait gauza. Ustelkeriaren kiratsa, adibidez, ez da uxatzen erreza. Horregatik Ibarbengoako parkingaren inaugurazioak ezingo ditu ahaztarazi Javyer Fernandez geltokiaren eraikitzaileak kartzelan pasatako urteak, ezta Florentino Perezen irregulartasun kasu ugariak ere.

Getxoko Udal Gobernuaren autoritarismoa ere estaltzen zaila izango da. Herriaren gehiengoaren iritziaren aurkako proiektu bat poliziaren indarrez inposatu zutela ez baitugu ahaztuko. Zementu armatuko aurpegidunak, hori bai, urrezko erretiroa lortu du Senatuan. Lasai Imanol, Madrilen ez duzu amesgaiztoak eragiten dizkizun landarik ikusiko.

Baina bereziki, hamaika tona zementuk ezingo dute ezkutatu Tosuko landan sei urtez emandako borroka: 2007tik borrokan zeramaten auzokideen babesa, hitzaldi, bertso-saio eta auzolanak, ortuan pasatako orduak, Euskal Herriko hainbat txokotatik jasotako elkartasuna eta kalera ateratako milaka lagunen oihuak. Pesimistaren batek esango du: baina ekainean Ibarbengoako metro geltokian lehenengoz jaisten denak Tosuko borrokaren arrastorik ikusiko al du? Parkingak ez du inguruaren geografia goitik behera aldatu?

Egia da landa izandakoan borrokaren seinalerik aurkitzea ez dela erreza izango, auzokideren batekin berba egin ezean, behintzat. Hortik apur bat aldenduz gero, baina, segituan agertuko dira borrokaren seinaleak: bere horretan mantentzen diren ortu eta landak. Izan ere, ez gaitzatela engainatu, Getxoko lurretan oraindik landak baldin baditugu 2007tik orain arte egindako borrokarengatik da. Porlanak ezin baitu guztia tapatu, baina tapatu duena baino askoz gehiago tapatuko luke horren aurka borrokatu izan ez bagina.

Puntua eta kontrapuntua **Koronabirusa**

Normaltasun berria

Koronabirusaren gaia gori-gori dago eta ez zaio ahazten inori. Antza behar ditugu urte bat edo bi 'normaltasun berrira' iristeko, ongi: Zein da amesten duzun 'normaltasun' hori?

ARRATE ILLARO ETXEBARRIA
Getxo

Hau da lehenago ere amesten nuena: herri bat lehendakari berria duena, kale garbiak eta itsaso gardena; komertzio txikian erostea dena... Normaltasun zaharrean normala ez zena!

INAZIO VIDAL GURRUTXAGA
Leioa

ALBE Algortako Bertsolari Eskola

Maialen Berekoetxea Robador | Kolonbiatik aberriratzeko zailtasunak

«Amsterdamera hegan egitea izan da aukerarik onena»

IKER RINCON MORENO ▸

Hilabete biko nahasmen eta ziurgabetasunaren ondoren, Kolonbiatik etxera bueltatzea lortu du Maialen Berekoetxea Robador getxoztarrak. Joan den maiatzaren 8an webgunean argitaratu genuen bezala, hilabete horren hasieran itzulera-hegaldi gehiagorik antolatuko ez zuela iragarri zuen Espainiako Enbaxadak. Hala ere, oraindino ehunaka pertsona zegoen Kolonbian harrapatuta, etxera bueltatu ezinik; tartean, Berekoetxea. Horren aurrean, irtenbide bat bilatzen hasi zen getxoztarra, ezinezkoa zuelako denbora luze gehiagoz bertan segitu.

COVID-19aren pandemiak Kolonbiatik bidaiatzen ari zela harrapatu zuen. Bertako Gobernuak martxoaren 18an jakinarazi zuen bost egunen buruan konfinamendua ezarriko zuela; hala ere, jakinarazpen hori egin bezain laster lur eta aireko garraiobide denak eten zituzten agintariek. Getxoztarrak aitortu duenez, berak «zortea» izan du bere bikotekidea Bogotan bizi delako eta beragaz berrogeialdia egiteko aukera izan duelako bertan. Hasiera batean, Espainiako Gobernuak hegaldi bi antolatu zituen Kolonbian harrapatuta zeuden herritarrak aberriratzeko; martxoaren 27an lehenengoa, eta maiatzaren 2an azkena. Horien ondoren, «itzulera-hegaldien faseari amaiera» emango ziotela jakinarazi zuen Pablo Gómez de Olea Espainiako enbaxadoreak. Berekoetxea ezin izan zen horietako batean ere ontziratu.

Horren ondorioz, herrialdean harrapatuta zeuden euskaldunak bilatzen hasi zen getxoztarra, baita lortu ere. Batutako euskaldunetako bat Rafael Kutz Garaizabal Eusko Jaurlaritzaren Kolonbiako ordezkariagaz harremanetan zegoen eta hark gomendatu zien euren datu guztiak batzen zituen zerrenda bat osatzea. Era berean, Euskal Herriko hainbat hedabidegaz harremanetan jarri ziren bertan harrapatuta zeuden denen egoeraren berri gizarteratzeko. Hori egin eta egun batzuetara, Espainiako Kontsulatuak Europara bueltatzeko hegazkinak egongo zirela jakinarazi zuen bere webgunean, hala nola Amsterdam, Paris eta Munichera zihoazenak. «Esaten zuten balitekeela plazaren bat libre egotea hegaldi horietan eta interesa zutenek izena emateko deia egin zuten», azaldu du Berekoetxeak. Jende askok, baina, uko egin zion aukera horri; getxoztarrak ez. «Nik Eusko Jaurlaritzako ordezkariari galdetu nion ea zein izan zitekeen aukerarik onena etxera bueltatzeko eta berak Amsterdamerako bidea hartzea gomendatu zidan, bertatik zuzenean Madrilerako hegaldiak egongo zirelakoan». Eta halaxe egin zuen; izena eman eta bueltatzeko odiseari hasiera eman zion.

«Egun gutxira Kontsulatua nirekin harremanetan jarri zen, bi hilabetean aurrenekoz, esateko ezin zutela hegaldia ziurtatu, baina egotekotan horren kostua 1.000 eurokoa izango zela azpimarratu zidaten. Oso anbiguoa zen dena». Prezioa garestia iruditu zitzaion arren, etxera bueltatzeko beharra zela eta baiezkoa eman eta lekua gorde zioten. Handik gutxira beste dei bat jaso zuen getxoztarrak, jakinarazteko hegaldia aldatuko zela eta beste konpainia batekaz egingo zuela hegan, baita azkenean prezioa 650 eurokoa izango zela ere. Une horiek oso nahasgarriak izan zirela gogoan du Berekoetxea, «uneoro esaten zuten bertan behera gelditu egiten zela hegaldia eta gero beste bat ateratzen zen». Amsterdamerako bidaia egiaztatu eta hurrengo egunera Espainiako Kontsulatuak Madrilerako zuzeneko hegaldi bat antolatu zuen. «Ez naiz hartutako erabakiaz damutzen, horretarako jende piloak eman baitzuen izena: 700 pertsona hegazkin bakarrerako». Askok lurrean gelditu behar izan dute, hegaldi horietarako konfirmaziorik jaso ez zutelako; hala ere, getxoztarrak dio apurka badirudiela gero eta aukera gehiago egongo dela aberriratzeko. Bere kasuan, maiatzaren 21ean ekin zion bideari, Holandara hegan egin ondoren Madrilen lurreratu eta bertatik busez Bilbora bueltatzeko. Hainbat egunez berrogeialdian egon ondoren, PCR proban negatiboa eman du eta mediku gisa lanean hasteko zain dago berriro ere. ◂

Bogotatik Bilbora

Lau orduko kontrolak igaro ondoren, maiatzaren 21ean ontziratu zen Maialen Berekoetxea Bogotatik Amsterdamera joateko. «Denak pilatuta joan ginen hegazkinean, leku librerik gabe», deitoratu du getxoztarrak. Ondoren, 24 ordu eman zituen Holandako hiriburuan Madrilerako hegazkina hartzeko zain. Behin Espainian, autobus bat hartu eta Bilborako bidea hartu zuen, maiatzaren 25ean. Hilabete biko prozesua bost eguneko bidaia egiteko Bogotatik Bilbora.

Hizkuntzaren zalantzategia Eunate Muruaga

Iraupena eta maiztasuna

Epealdi bat adierazi nahi dugunean, denbora-tarte bat, zalantzak izaten ditugu denbora-unitatea deklinatzean (*aste*, *egun*, *ordu*...). Kontuan izan behar dugu, dena den, zentzu ezberdina daukatela mugagabean zein singularrean idatziz gero. Ikus dezagun.

Lehenengo eta behin, argi izan behar dugu iraupenaz ala maiztasunaz ari garen; izan ere, ez da gauza bera epealdi bati erreferentzia egitea edo noizean behin egiten dena aipatzea. Hori horrela, bataren eta bestearen inguruko azalpenak eta argibideak emango ditugu jarraian, betiere Euskaltzaindiaren araua oinarri hartuta.

Iraupenarekin hasiko gara. Eta horra hor lehenengo zalantza: nola esaten da euskaraz «*estuve en Alemania a lo largo de dos años*»? Bi urtez? Bi urtean? Bi urtetan? Bada, iraupena adierazteko, absolutiboaz (NOR) eta instrumentalaz (ZEREZ) gainera, inesiboa (NON) ere erabiltzen da. Hona hemen zenbait adibide: «Jonas *hiru egunez* izan zen balearen erraietan», «Jonas balearen sabelean *hiru egun eta hiru gau* izan baitzen...», «Erroman *bi urtean* egon zen». ZEREZ eta NOR kasuak erabiltzen baditugu iraupena adierazteko, mugagabea behar dugu (*hiru egunez* / *hiru egun eta hiru gau*).

NON kasuarekin, ordea, mugatu singularra hobesten da, iraupena adierazi nahi badugu, bederen. Hau da, denboran etenik ematen ez bada. Hona hemen: «*Hiru urtean* ikasi du euskara, *lau hilabetean* egin zuen lan...». Iraupenik adierazten ez denean, aldiz, mugagabea erabiltzen da. Hiru urteko epealdia jarraitua ez bada, hots, bata bestearen ondoren ez doazen urteez ari bagara («hiru urte desberdin»etan gertatu den zerbait adierazi nahi bada), mugagabea behar du izan: «Astero joateko aukera nuen, baina *bost astetan* bakarrik joan nintzen» (jarraian izan ez zirenak). Hortaz, «*Bi urtean* Alemanian izan nintzen» (bi urte jarraian) eta «*Bi urtetan* Alemanian izan nintzen» (bi urte ezberdinetan) ez dira gauza bera.

> Nola esaten da euskaraz «*estuve en Alemania a lo largo de dos años*»? Bi urtez? Bi urtean? Bi urtetan? Bada, iraupena adierazteko, absolutiboaz (NOR) eta instrumentalaz (ZEREZ) gainera, inesiboa (NON) ere erabiltzen da.

Maiztasunari dagokionez, kasu batzuetan, mugagabea zein mugatua erabili, biak dira onargarriak; izan ere, baliokideak dira esapide hauek guztiak: *Lau urtez behin* / *lau urterik behin* / *lau urtetarik behin* / *lau urtetik behin* / *lau urtetarik lau urtetara* / *lau urtetik lau urtera*... Dena den, NON kasuarekin mugagabea bakarrik dago onartuta: «*Lau urtean behin*».

Hala ere, deklinabidea erabiltzeaz gain, badaude zenbait egitura maiztasuna adierazteko balio dutenak. Horietako bat da *izena + -ero* gisako esamoldea: *astero*, *hilero*, *urtero*... Baina egitura horrek erabilera okerra egitera eramaten gaitu askotan. Sarri entzuten da «*Bi astero* egiten dugu bilera». Kontuz, *zenbatzailea + izena + -ero* esamoldea ez baita egokia: «**hiru urtero aldatzen dute arduraduna*», «**hamabost egunero etortzen zait bisitan*». Horien ordez, *zenbatean behin* egiturari erantzun behar diogu: «*Bi astean behin* egiten dugu bilera», «*Hamabost egunean behin* etortzen zait bisitan». ◂

Historiaren ganbara Iñaki Libano

Burdin Hesiaren memoria

Ondoko testua 1937ko ekainaren 12an Urdulizen bizi izandakoaren kontakizun bat da, lehen pertsonan idatzia. Egun hartan Burdin Hesia hautsi zen Gaztelumendin. Frankisten abiazioa eta artilleria nagusi ziren, eta gudari eta errepublikanoak ez ziren gai izan eusteko.

Santa Marinako Haitzak. Goizeko 8ak dira, eta egunsentitik denok gabiltza egonezinean. Kuartel nagusitik oharra bidali digute: gaur alerta gorenean gaude. Goizean goiz, artean ilun zegoela eta lehenengo eguzki-printzak sortaldetik agertzen ari zirenean, aurreko egunetan hain ohikoa izan den «oihartzuna» entzuten hasi gara: frankistak gure kideen aurka egiten dabiltzan bonbardaketen burrunba, Jatan, Solluben, Gaztelumendin eta Gamizmendin.

Santa Marinako Haitzen begiratoki garaienetik, geure begiz ikus dezakegu aurreko egunetan su-bonbek Jata mendian eragindako suteen kea, baita Gaztelumendi ingurukoa ere, orain oso gutxi sortutakoa. Mungiako ibarraren ikuspegia desagertzen ez den lanbro batek lausotzen digu; leherketen keak, Mungiako baserri eta etxeetako suteenak eta hurbileko gailurretako gudarien posizioetakoak sortutako lanbroa.

Aurreko egunetan, lantzean behin, abioi italiar eta alemaniarrak gure gainetik igaro izan dira, gu beldurtzeko asmoz, baina ez dizkigute euren lehergailu hilgarriak jaurti. Haien zarata erlauntz batenaren modukoa da hasieran, etengabea eta errepikakorra; apurka-apurka ozenago eginez doa, belarriak estaltzera behartzen zaituen burrunba bihurtu arte. Antza denez, euren jomugak Lamiakon dugun aerodromo kolpatua, gure Labe Garaietako fabrikak eta Bizkaia Zubia izan dira. Esan digutenez, jomuga horiekiko asmoa ez da berdina izan kasu denetan.

Bizkaia Zubia, bonbardatua baina ez suntsitua

«Bizkaia Zubiari dagokionez, alferrekoak izan dira suntsitzeko egin dituzten ahaleginak. Hainbat bider saiatuta ere, ez dira hura jotzeko gai izan. Ezker ibarrerantz erretiratzeko zorian gaudenez, komenigarria da zubia egoera onean egotea».

Orain dela aste batzuk gure abioien eta frankisten arteko azken guduetako baten lekukoak izan ginen, Urdulizen gain-gainean. Gure lurreko posizioetatik italiar abioi horietako batzuk botatzen saiatu ginen, baina ez genuen lortu. Jaurti genizkien obusek ez zituzten jo, eta horietako baten bat Luberrieta baserriaren ondoan jausi zen. Badakigu ere abioi horiek Urdulizko hainbat leku metrailatu dituztela, Ansoleaga Bekoa baserria esate baterako.

Bonbardaketek Lamiakoko nasan dugun aerodromoa suntsitu dute, baita haren defentsa-bateria ere, Gazteluetan ipinita geneukana. Labe Garaiak bonbardatzeko saiakerek, arinak izan badira ere, labe guztia gelditzea eragin dute. Bizkaia Zubiari dagokionez, alferrekoak izan dira suntsitzeko egin dituzten ahaleginak. Hainbat bider bonbardatzen saiatuta ere, ez dira hura jotzeko gai izan; momentu honetan ezker ibarrerantz erretiratzeko zorian gaudela uste dugunez gero, guretzat oso komenigarria izango da zubia egoera onean egotea, gudarosteak itsasadarra zeharkatu ahal izateko. Agindua jasotzeko zain gaude, urduri eta zer gertatuko den ondo jakin gabe... ◂

Hasi eta hazten jarraitu Nerea Garcia

Norberaren egokitze-ahalmenaren garrantzia

Ziur konfinamenduan ikasitakoa ez dugula sekula ahaztuko. Izan ere, zeinek esango liguke egoera berriei egokitzeko gaitasuna geneukala? Dudarik gabe ez da erronka erraza izan Haszten elkarteko kirolarientzat, oraingo honetan haien ohitura osasungarriekin jarraitu ahal izateko ezohiko oztopoak topatu baitituzte.

Egokitze-ahalmena norbere egunerokotasunean etengabe erabiltzen duen eta ezbeharrei buelta emanez ikasketarako leku berri bat aurkitzen duenarentzat berrogeialdia erronkaz beteriko bidaia bat izan dela pentsa genezake. Izan ere, horretan datza kontua: osasun-ohiturak abiapuntutzat hartuta, kirolak eta ariketa fisikoak eskaintzen dituen onura fisiko, psikologiko eta sozialak lortzen ahalegintzea izan da beti helburu nagusia. Horregatik, gizarte inklusiboago bat lortzeko asmoz, beharrezkoa izan da elkarteko kirolariei erreminta eta baliabide berriak ematea, batez ere mugimendu-ezak dakarren egoera berri honi aurre egiteko. Azken finean, nahiz eta gure esku-hartze estiloarekin eta oinarrizko filosofiarekin bat ez egin, inaktibitate fisikoa saihestu beharra zegoen batez ere, nahiz eta Interneten bidez egindako jarduerek parte hartzaileekiko feedback zuzena eman eta jasotzeko aukerarik ez eman. Horregatik, ulertu beharra dago kirol egokituaren kasuan ere irakaskuntza-prozesuan zehar kontuan izan beharreko aspektu garrantzitsuenetariko bat dela modu aktiboan jardutea, praktika aurrera eramaten ari den bitartean, akatsak zuzentzeko eta parte-hartzaileekiko errefortzu positiboa izateko.

Horrela, Zumba, entrenamendu funtzionala, joko txiki, eskulanak edo malabarrak eta beste motatako gaitasun koordinatiboak lantzeko bideoak sortuta, parte-hartze aktibo bat sustatzea erabaki genuen, YouTube eta sare sozialen bidez. Izan ere, bihotzez zaindu beharreko ezinbesteko gauzak dira familiak, haien eskutik hartuta diharduelako elkarteko ekintza oro, haiek dira aniztasun funtzionalari ikusgarritasuna emateko betidanik borrokan aritu izan direnak, eta haien seme alabentzat merezi dituzten eskubideak eta berdintasuna lortzeko gizarte bidezkoago baten alde etengabe dihardutenak. Hortaz, zer medikuntza hobea ariketa fisikoa eta kirola baino, garapen integrala lortu eta autoestimua sendotzeko?

Egia da kirol-praktikan modalitate bakoitza oso desberdina dela batetik bestera; parte-hartzaile bakoitzak gustu desberdinak ditu, janaria bezala, adibidez: batzuek arraina, beste batzuek haragia eta beste gutxi batzuek ezohiko gauzak gustuko izango dituzte. Esan beharra dago ariketa fisikoaren eta kirolpraktikaren onura osasungarriak lortzeko beharrezkoa dela jarraitasuna, eta hori ez dela lanik gabe lortzen. Izan ere, horretarako ezaugarri oso esanguratsua da motibazioa. Orduan, nola sustatu ariketa fisikoarekiko atxikipena etxean? Nola piztu parte-hartzaileekiko interesa? Zer-nolako jarduerak egin daitezke haien artean baita ere hain inportantea den sozializazioa lortzeko? Alabaina, galderen bitartez saiakerak sortzen ziren, eta horien artean sentsibilizazio-tailerrak, eskolak zuzenean eta inaktibitate fisikoaren ondorioak saihesteko gomendioak eman genituen, baita hamar bideo-dei inguru ere egin ziren, 80 kirolari baino gehiagoren parte-hartzearekin.

> Elkarteko kideen inaktibitate fisikoa saihestu beharra zegoen eta horretarako Internet baliatu dugu.

> Nahi duenak bizi-estilo aktibo bat izateko aukerak izan behar ditu, eta gero bakoitzak hautatuko du zer egin.

Esaten den bezala, nahi duenak bizi-estilo aktibo bat izateko aukerak izan behar ditu, eta gero pertsona bakoitzak nahi duen bidea hautatuko du, logikoa denez. Funtsezkoa dena zera da: agertzen diren arazoetarako irtenbideak pentsatzerakoan, ahalik eta pertsona kopuru handienarentzat eskuragarria, anitza eta kalitatezko komunikazioa egotea da, betiere elkartea osatzen duten pertsona guztien garapen integrala hobetzeko eta etengabeko ikaskuntzan oinarritutako bizi-estiloa garatzeko helburuarekin. Beti ikus daitezke egoeren alde positiboak, askotan bestela, negatiboak izatera zigortuta egongo direlako. Batzuetan ez da erraza oreka mantentzea, batzuetan arriskuaren haria urratu beharra dago gure helburuak lortzeko, baina elkartasunean jardunez gero, ziur ez diegula huts egingo hautatu ditugun erantzukizunei; gizartearekin, kirolariekin, familiekin, lankideekin eta gure ingurumen osoarekin.

Berrogeialdiaren ondorioz, Haszteni bere esku-hartzea modu desberdin batean eraldatzeko eta egokitzeko aukera eman zaio, proiektuak prestatzeko eta hobetzeko aukera eskaini zaio, kantxara bueltatzeko momentuan inoiz baino indartsuago hasi eta hazten jarraitzeko. ◂

Gatz-ozpinetan Izei Azkue

Tabbouleh, kus-kus ala bulgurrarekin?

Tabbouleh Ekialde Hurbileko platera aski ezaguna da; baina, zein da plater horren jatorria? Zein da horren jatorrizko osagai nagusia? Askok zuzenean kus-kusarekin erlazionatu egiten dute; hala ere, jatorriz entsalada hori ez da horrekin egiten, baizik eta bulgur izeneko zerealarekin.

Tabbouleh Ekialde Hurbilean jaiotako entsaladarik ezagunena da. Askok berba hori entzuten dutenean zuzenean kus-kusarekin erlazionatu egiten dute plater hori; hala ere, jatorriz, entsalada honek ez dauka zerikusirik kus-kusarekin, baizik eta bulgur deituriko zerealarekin. Ez da erraza izaten hemen osagai hori aurkitzea, kus-kusarekin ez bezala, hori egiteko semola edonon topa dezakegu eta. Hala ere, bulgurra ondo bilatuz gero ez dugu arazorik izango aurkitzeko. Hasiera batean, dietetika edo denda ekologikoetan topa genezakeen soilik; hala ere, gaur egun erostetxe handietan ere aurki dezakegu inolako arazorik gabe.

Normalean, bulgurra prestatzeko denbora nahikoa inbertitu beharra dago. Izan ere, lehenik eta behin, gari-aleak egosi egin behar ditugu eta horren ostean eguzkipean lehortzen utzi, hainbat egunez. Gero, horiek txikitu eta zahia kendu egin behar zaie. Horrela, ale ezberdinak lortzen dira, baita tamaina ezberdinak ere eta honen arabera sailkatu egiten dira.

Tabbouleh entsalada probatu nuen lehenengo aldia kus-kusarekin egindakoa izan zen. Hala ere, bulgurra probatu ondoren, aitortu beharra daukat orain horrekin egindakoa nahiago dudala, inolako zalantzarik gabe. Horretarako, Libanoko errezeta tipiko bat partekatuko dut zuekin. Dena dela, ohi bezala, aldez aurretik zereal honen propietateak, ezaugarriak eta onurak azalduko dizkizuet.

BULGURRAREN EZAUGARRIAK. Bulgurrak propietate asko ditu. Hasteko, zereala den heinean, nola ez, zuntz-iturri paregabea da. Are gehiago, nabarmendu beharra dago beste zereal batzuek baino askoz ere zuntz-kantitate handiagoa duela. Horri esker, urdaileko arazoak dituztenentzat oso gomendagarria dela diote adituek, digestio-prozesuan laguntzen duelako. Zereal honek indize gluzemiko txikia du; hori dela eta, diabetesa dutenentzat gomendagarria ere bada, karbohidrato-iturri handia den arren azukrea oso abiadura motelean bereganatzen duelako. Gainera, bulgurrak mineral asko eskaintzen dizkigu, hala nola fosforoa, kaltzioa, burdina eta potasioa. Horiei esker antioxidatzaile bikaina da gure organismorako. Gainera, bulgurraren kaloria-ekarpena oso txikia da, beste zereal asko baino txikiagoa eta asetze-sentsazio handia ematen du, pisua galtzeko aproposa izanda. Ikus dezakezuenez, onurez betetako produktua dugu bulgurra. Zelan jan dezakegun jakin nahi duzue? Goazen bada!

Tabbouleh

Osagaiak

Tomateak, tipula, perrexila, menta, bulgurra, limoi-zukua, oliba-olioa, gatza eta piperbeltz zuria.

LIBANOKO TABBOULEH-A. Entsalada freskagarri hau egiteko hainbat osagai beharko ditugu, hala nola tomateak, tipula, perrexila, menta, bulgurra, limoi-zukua, oliba-olioa, gatza eta piperbeltz zuria. Behin elementu denak prest ditugula, lehenik tomateei azala eta haziak kendu beharko dizkiegu. Ondoren, laukitxotan zatitu eta baztertu egingo dugu. Bulgurrari dagokionez, ale txikitxoak baditugu ez dugu aurretik azaldutako prozesu luzea egin behar izango. Kasu honetan, limoi-zukuarekin nahikoa izango dugu aletxook urtzeko. Tipulak ere zati txikitan zatituko ditugu, tomatearekin egin bezala, baita falta zaizkigun perrexila eta menta ere.

Dena prest dugunean, limoi-zuku gehiago botako dugu, bulgurra urtu dadin. Kasu honetan, adi ibili beharko gara. Izan ere, zenbat eta bulgur gehiago izan, orduan eta limoi-zuku gehiago beharko dugu hori dena urtzeko. Amaitzeko, entsalada guztietan egin ohi dugun legez, osagai guztiak ondo nahastuko ditugu eta gatza eta oliba-olioa botako diogu gainetik. Horien kantitateak norberaren gustuaren araberakoak izango dira; hemen ez dizuet asko edo gutxi izan behar dela esango, zuen esku-eskuan dago erabaki hori!

Uda, eta horri lotutako beroa ate joka ditugula, orriotara ekarritako proposamen hau ezinbestekoa izango delakoan nago. Espero dut errezeta zuen gustukoa izatea, izan ere datorren sasoi honetarako zer hobeagoa entsalada fresko bat baino? On dagizuela! ◂

Distantzia, zigilua eta maskarak

Ez dakigu zer nolako arau berriak etorriko diren hurrengo asteetan, baina argi dago hainbat segurtasun-neurri luzerako izango ditugula hemen. Maskarek kaleak beteko dituzte, zoritxarrez askok lurrean botata. Zigilua eta segurtasun-distantziak bermatzeko markak eta edukiera mugatuta egongo da hainbat taberna, hondartza eta parketan. Horixe izango da politikariek eta adituek dioten «normaltasun berria» delakoa, egunez egun moldatzen joango dena, beharren eta aurreikuspenen arabera.

TESTUA ETA ARGAZKIAK: **HODEI TORRES**

Ilara luzeetan jendea zain ikustea normala egin zaigu egun batetik bestera.

Denda, banku eta bestelako establezimenduen atarian ilarak ikustea ohikoa da, segurtasun-distantziak mantentzeko eta edukiera mugatuak direla eta. Maskara barik jende gutxi dabil kaletik, batzuk sudurra kanpoan airea hartu beharrean edo, eta beste askok, lurrean botata «ahaztu» egiten dituztenak. Eskuak garbitzea ohitura bihurtu da, baina ez iturriak erabilita, dekretuz.

Arau berriakaz, konponbide eta arazo berriak ere badatoz.

Mugikortasun-arauak direla eta, jende- eta ibilgailu-pilaketa ugari sortu da nonahi; Akarlanda parkea inoiz baino beteago ikusi dugu, baita kostaldeko hondartzak ere. Ondorioz, udalek gune horien denen erabilera arautzeko neurriak ezartzea beharrezkoa ikusi dute. Parkinak mugatu, barbakoa egiteko eremuak zigilatu, hondartzaren erabilera mugatu eta paseoetan joan-etorrien noranzkoak definitu dituzte.

2,1m

Udako jaiak bertan behera geratu dira, baina herri batzuetan alternatibak lantzen hasi dira.

Udaren izaeraren berezko ezaugarriak dira jaiak. Aurten, baina, udaldia oso ezberdina izango dela dirudi, eta daborduko ohiko festen ordezko alternatibak bilatzen hasi dira leku askotan. Lamiakon, berbarako, jai birtualak egin dituzte maiatzaren akabuan, txupinazoa eta guzti. Beste batzuetan, atzeratu edo zer egingo duten pentsatuz daude.

Koronabirusak aldaketak eta berrikuntzak ekarri ditu.

Protesta egiteko elkarretaratze- eta manifestazio-ereduak aldatu dira halabeharrez; maskarak eta segurtasun-distantziak mantendu beharrak ikusgarriago egin ditu, ordea. Bestalde, tabernek euren burua modernizatu beharra ikusi dute, QR kodeak erabiliz haien kartak ikusarazteko. Era berean, manparak ipini dituzte beste hainbatek, mahaien arteko distantzia eta segurtasuna bermatzeko. Beste batzuek, ordea, koloretako lerroak erabilita markatu dituzte bezeroentzako distantziak errazago ikusarazteko.

Josemi Gondra Farmazeutikoa

«Auzo denetan dagoen osasun-agentea da Farmazia»

Larrialdi-egoeran bizi garen honetan, farmaziak lehen lerrora egin dute salto COVID-19aren pandemiari aurre egiteko. Horietan eskuratu ditzakegu orain nonahi ikus daitezkeen maskarak, baita eskuak uneoro garbitzeko gel hidroalkoholikoak ere. Baina hori ez da beti horrela izan, hasieran hornidura-arazoak izan zituzten eta.

TESTUA ETA ARGAZKIA: **IKER RINCON MORENO** ▶

Anbulatorioak kolapsatuta

Apurka-apurka «ez dago maskararik» eta mota horretako kartelak zituzten irudiak desagertzen ari dira eta normaltasun berri batera igarotzen hasi dira gure auzoetako farmaziak. Daborduko ia edozer gauza eros daiteke horietan, pandemiaren hasierako egunetan bizi izandako erosketa konpultsiboen ondoren hainbat produktu agortu ondoren. Farmaziek paper garrantzitsua bete dute bi hilabeteotan COVID-19aren krisian. Horren nondik norakoak ezagutzeko Algortako Alzola Farmaziako Josemi Gondragaz egin dugu berba.

Zelan bizi izan duzu COVID-19aren pandemia hau? Harritu egin nintzen Alerta Egoera ezarri zenean. Une horretatik aurrera zirudien farmaziak tabernako barrak zirela; jende asko etortzen hasi zen konpultsiboki erostera, supermerkatuetako irudiak errepikatuz. Hasierako egunetan, batez ere, termometroak eta parazetamola agortu egin ziren. Harrigarria izan zen, ilarak egun osoan.

Joera konpultsiboa

«Hasierako egunetan jende asko etortzen zen konpultsiboki erostera. Termometroak eta parazetamola agortu ziren»

Noiz normalizatu zen egoera? Aste biko kontua izan zen hura. Farmaziak zabalik mantendu ahal izan den establezimendu bakarrenetarikoa izan da, hasiera-hasieratik. Hemen jendea

Langileen babesa

«Alarma Egoera eta aste bira arte ez genuen maskararik, ez eskularrurik ezta gel hidroalkoholikorik ere. Manparak jarri genituen»

laguntzen dugu eta ahal genuena egiten genuen. Hasieran maskara, eskularru eta gel hidroalkoholikorik gabe, guztiz babesik gabe geunden. Gerora, krisia hasi eta hamar egunera, manparak jarri genituen langileontzako segurtasuna bermatzeko, isolamendu ona eskaintzen dutelako. Oso garestiak dira, eta gure poltsikotik ordaindu genituen, baina langileon osasuna bermatu beharra zegoen.

Maskaren erabilerak eztabaida ugari sortu ditu hilabeteotan. Hasierako gomendapen hutsetik derrigorra izatera igaro da segurtasun-distantzia bermatu ezin den lekuetan. Zer deritzozu horri? Garraio publikoan eta leku itxietan derrigorra

egon diren bitartean, auzoetako farmaziak zuzeneko osasun-agente izan dira; gaixo askok horietara jo dute aholku bila hilabeteotan.

izan beharko luke, baita bileretan ere segurtasun-distantziak mantendu ezin direnean. Baina aire zabalean erabili behar izatea gehiegikeria dela uste dut. Onena beti da segurtasun-distantziak mantentzea, kontuan hartu behar dugulako maskarak erabiltzeak arnasteko arazoak eragin ditzakeela; ezin zara arin ibili, aire-fluxua motelagoa delako eta oxigeno-maila murrizten dugulako. Ondorioz, hainbat kalte eragin ditzake, hala nola arnasteko ezintasuna eta buruko mina. Ulertzen dut norberaren erabakia dela, norbere burua gehiago babesteko, eta zaurgarriak diren pertsonek ere erabili beharko lukete, baita adinekoek ere. Gainontzekoek kalean eta aire zabalean ez lukete zertan erabili, betiere distantziak mantenduta, noski.

Prezioen muga non?

«Hornitzaile askok mugatik gorako prezioetan saldu dituzte produktu asko. Guk muga horiek mantendu ditugu beti»

Askotariko maskarak daude aukeran. Zein eta non erabili beharko genuke mota bakoitza? Norberaren erabakia da azken finean. Kirurgikoak erabili eta botatzekoak dira eta ondokoak ez kutsatzeko dira; zure burua ere babesten dute maila batean, baina ez da euren eginkizun nagusia. Egia da denok mota horretakoak erabiliko bagenitu orduan denok babestuta egongo ginatekeela, baina, lehen esandakoa, bakarrik eta aire zabalean gaudenean ez dut uste beharrezkoak direnik. Badaude garbitu eta berrerabil daitezkeenak, eta guztiz babesten zaituzten FFP2 motatakoak ere. Dena dela, ez gara obsesionatu behar; jendea hezi behar dugu eta erakutsi non eta noiz erabili behar diren horiek. Pertsona zaurgarriek erabili beharko lituzkete batez ere; osasuntsuek, aldiz, soilik kontaktu zuzena dutenean beste pertsonekin.

Hornidura-arazorik izan duzue? Hasierako egunetan eskularruak agortu egin ziren, eta ordutik ez ditugu jarraitasunez izan. Ehunaka pertsonako itxarote-zerrenda dugu horiek erosteko, baina ez daude merkatuan, oso zaila da horiek lortzea mundu mailan. Maskaren harira, asko itxaron behar izan dugu eskaintza orekatzeko. Daborduko kirurgikoak saldu ditzakegu inolako arazorik gabe, baita filtrazio-maila handiagoa duten FFP2 motatakoak ere. Gel hidroalkoholikoari dagokionez, krisiaren hasieran ez zegoen eta saltzen zirenak abusuzko prezioan saltzen ziren; prezioak normalizatu diren arte denbora behar izan da. Izan ere, momentu batean ez zegoen ezta alkoholik ere industria-mailan produktu hori egiteko.

Zelako papera jokatu dute farmaziek COVID-19ak eragindako pandemia honen aurrean? Konfinamenduaren hasieran ezinezkoa zen anbulatorioetara joatea, guztiz kolapsatuta zeudelako koronabirusa zela eta. Ezinezkoa zen horietara joatea norberak zituen ondoezak aztertzeko, gainera, jendeak beldurra zuen. Hala, nora jotzen zuen jendeak aholku bila? Farmazietara. Osasun-mailan irisgarrienak gara gu, auzo denetan gaude; Algortan bi anbulatorio daude, farmaziak, aldiz, hamazazpi inguru. Hala ere, Estatuak ez gaitu aintzat hartzen eta erakunde pribatuak izango bagina bezala jokatzen du gurekin. Herritarrak sendagaiez hornitzen ditugu, Estatuarekin kontzertu bat daukagu, baina ez dute uste agente-sanitarioak garenik; ondorioz, ez du kolaboraziorik bilatzen hemen.

COVID-19 kasurik atzeman duzue bezeroen artean? Egia esanda, konfirmatutako kasu oso gutxi etorri da ona, baina egon dira, bai. Berbarako, egun batean mutil bat etorri zen osasun-etxeko paper batekin. Horretan apuntatuta zegoen «COVID-19 kasu posiblea» izan zitekeela; mutilak ez zekarren inolako babes-neurririk, ez maskararik ez ezer, eta ez zuen inolako sintomarik. Hori horrela, papera ikusi arte ez genuen atzeman kutsatuta egon zitekeenik. Normalean, gaixotasunaren sintomak atzematen ditugunean pertsona hori zuzenean medikuarenera bideratzen dugu, hemen ezin dugulako ezer gehiagorik egin. ◂

Ibon Atxa Erizaina

«Txaloak, orain, mobilizazio bihurtu behar direla uste dut»

Basurtuko ospitalean urte eta erdi baino gutxitxoago daroa erizain-lanean Ibon Atxa erandioztarrak. Beraren ohiko zeregina bihotzeko gaixoak artatzea izaten bada ere, denboraldi batez COVID-19a zuten gaixo larriakaz egotea egokitu zaio pandemia honetan, horretarako premia egon denean.

UNAI BREA ▶

Basurtuko ospitalean urte eta erdi inguru daroa beharrean Ibon Atxak. HODEI TORRES

Basurtuko ospitalea pandemiara egokitu beharra zegoela eta, sei astez ezohiko lana egitea eta koronabirusak kutsatutako gaixo larriak zaintzea tokatu zaio Ibon Atxari. Bizipena zelakoa den azaldu digu.

Zein izan da zehazki COVID-19agaz izan duzun harremana? Basurtun COVIDerako beren-beregi ireki diren sei ZIUetako batean egotea tokatu zait hilabete eta erdiz, zerbitzua itxi zen arte (maiatzaren 7an). Zabaldu zen azkenekoan egon naiz, ZIUetan sartzen zen gaixo-kopurua jaisten hasi zenean, beraz gure lan-karga ez da han handia izan. Ez zaigu bete zerbitzua.

Baina zuena berez ez da ZIUa, ezta? Ez. ZIUa izateko moldatu behar izan da, materiala prestatu eta abar... Gainera, gurean ez dago logela itxirik, eta normalean gaixo horiek airetik transmititzen dute COVIDa. Ondorioz, gune osoa «zikina» zen.

Zer esan gura du horrek? Sartzen zinen momentutik, eta denbora guztian, Norbera Babesteko Ekipamendua (NBE) jantzita eduki behar zenuela. Beste zerbitzuetan, logelak egonda, kanpokoa garbia zen eta barrukoa zikina. Ondorioz, gure kasuan denbora gehiago egon behar ginen NBEa jantzita.

Eta ez da erosoa... Nahiko deserosoa da, beroa pasatzen da, maskarak presio egiten du eta nahiko enbarazu egiten du, betaurrekoek eta pantailak ere bai... Eta lan-kargaren arabera, ordu askotxo horrela egotea tokatu ahal zaizu. Buruko mina sortzen da, eta lankide batzuk zorabiatu izan dira. Eta ez dago aukerarik NBEa kentzeko, behin ipinita.

Horrez gain, zer moduzkoa izan da bizipena? Joera dut gauzak pasa eta gero balorazio positiboak egitera, eta esan dezaket ez dela guztiz txarra izan. Baina kontuan izan behar da nik ez daukadala pertsonarik nire zaintzapean, gaztea naizela... Asma daukat, hori bai, eta une batzuetan pentsatu izan dut «positiboa banaiz zelan eragingo dit horrek, agian larriagotu egingo dit». Baina tira, etxea pertsona gazte osasuntsu batekin konpartitzen dut, eta horrek ere lasaitasuna ematen du etxera bueltatzeko orduan. Egia da ere momentu askotan kezka izan dudala, nik hartzeko baino, etxera eramateko. Eta badakit kide askok, umeak zituztenak, edo bikotekide zaurgarriak, edo gurasoak... Lan-kargaz aparte beldur horrekin ibili direla.

Kezka-giroan egon zarete, orduan? Duda gabe. Eta testuingurua ulertzeko: asko hitz egin da ZIUetako oheez eta arnasgailuez, baina gutxi aipatzen da horren atzean trebatutako pertsona bat egon behar dela gaixoa zaintzen, eta guri tokatu zaigu ireki diren zerbitzu askotako profesionalak prestatuta ez egotea gaixo horiek artatzeko.

«Ez gara gerlariak»

«Ez zait batere gustatu hau gerra bat bezala planteatzea. Gu ez gara gerlariak, osasun-langileak gara, eta hau birus bat da, ondorio fisiko, psikologiko eta sozialak dituena, eta horrela egin behar zaio aurre, Tratamenduak bilatu, eta zaintza-sareak sortu. Erizainak ez gara super-heroiak, langileak baizik, eta baliabideak eta lan-baldintza duinak behar ditugu».

Zer dute berezi gaixo horiek? Arnasgailuarekin dauden gaixoek hodi bat dute ahotik sartuta biriketaraino, eta denbora guztian, edo ia, sedazioa dute, oso ez-egonkorrak dira, erabiltzen diren drogak ez dira normalean erabiltzen direnak, makinak ere ez... Nahastuta egon gara, egoera horretarako trebatuta zeuden batzuk ez zeudenekin, baina trebatuta dagoenak lan-karga handiagoa du, eta ez dagoenarentzat egoera ez da erraza, ez dakielako gaixo hori maneiatzen. Lan-karga, estresa, birusaz ez kutsatzeko kezka... Dena batzen da.

Egoera latza, deskribatzen zabiltzana. Esan nahi nuke, dena dela, gure lanbidean elkartasun handia dagoela, eta aurre egin ahal izan diogula egoerari, jakintza ahalik eta azkarren partekatzen. Horri esker hainbat bizitza aurrera atera dira.

Merezitako txalok, orduan, iluntzerokoak... [Irribarre]. Bada, txaloek sentsazio gazi-gozoa eragin didate. Alde batetik ona iruditzen zait jendeak egiten dugun lana aitortzea, eta ez guk bakarrik: zaintzaile askok, supermerkatuetako langileek, oinarrizko zerbitzuetakoek... Bestalde, uste dut txaloak orain mobilizazio bihurtu behar direla. Garai gogorrak omen datoz eta norbaitek argi ez bazuen, orain argiago dago osasun publikoa beharrezkoa dela, eta haren aldeko apustua bizitzaren aldeko apustua dela. ◀

Hezkuntza

hiruka
Gehigarri berezia

159. zenbakia
2020ko ekaina

Geroa marrazteko, ondo aukeratu

Uribe Kostako gurasoek eta tutoreek eskura daukate ikastetxe-eskaintza zabala, etxeko gazteenek kalitatezko hezkuntzaz goza dezaten.

Zelako hezkuntza-mota ekarri

ko digu koronabirusak?

Matrikulazio-kanpaina hasita dago hezkuntzako zenbait arlotarako, eta ezinbestean gogora datorkigun galdera hau da: «Zer dakar geroak?». COVID-19aren pandemiak zeharo baldintzatu du ikasturte hau, zer jazoko da irailetik aurrera?

Haur Eskoletarako, Lanbide Heziketarako eta Batxilergorako aurrematrikulazio-kanpaina betean gaude. Txikitxoenen kasuan (hau da, iaz eta aurten jaiotakoak), maiatzaren 21etik egon da aukera eskariak online egiteko, eta ekainaren 1etik aurrez aurrekoetarako. Kasu bietan, hilaren 8an amaituko da epea. Tartea askoz zabalagoa da Batxilergoaren eta Lanbide Heziketaren kasuan. Normalean halako informazioak izaten dira gurasoen interesekoak, hau da, egutegiak, datak eta epeak. Martxoaren erdialdean SARS-CoV-2 koronabirusak gure bizitzaren arlo denak hankaz gora ipini zituenetik, ordea, bestelakoak, eta askoz handiagoak, dira kezkak.

Izan ere, eta matrikulazioak matrikulazio, irailetik aurrera hastekoa den ikasturtea zelakoa izango den asmatzen dihardu hezkuntza-komunitateak. Eta «asmatu» diogunean, ez dugu «igarri» esan gura, «sortu» baino. COVID-19 pandemiaren bilakabidearen araberakoa izango da beste guztia, eta zehazki zer gertatuko den jakiterik ez dagoenez, noraezean dabil hezkuntza-mundua, zein egoeratara egokitu beharko duen oraindino oso ondo ez dakiela.

«Oraintxe A plana, B plana, eta plan gehiago gabiltza prestatzen; buruhauste handia da hau», aitortu digu eskualdeko ikastetxe bateko zuzendariak. Oraingo agertokia mantenduz gero, hau da, ikasturtea hasi orduko koronabirusaren zabalkundea galarazteko oraingo neurri berak baleude indarrean, lekuaren antolaketa arazo handia (ez bakarra) litzateke ikastetxeentzat. Bide bat izan liteke arlo bakoitzari dagokion eskolak bikoiztea; bestela esanda, lehen ordubetean eta 30 ikasleko gela batean ematen zena, ordu bitan ematea (hau da, bi aldiz), hamabosnako taldeei. Hala eginda, noski, ezinezkoa litzateke orain arteko ikasgai guztiak irakastea. Curriculuma berrikusi beharko litzateke, eta gordin esanda, zein arlo sakrifikatu erabaki, beste batzuk behar bezala lantzeko denbora izate aldera.

> Gaur egungo egoeran, eta indarrean dauden osasun-neurriakaz, zaila ematen du ikastetxeetako gune fisikoak erabiltzeko sistema eraginkorrak asmatzeak.

Eskolez gain, ikastetxeko ohiko bizimodua berrantolatzea ere ez litzateke ahuntzaren gauerdiko eztula. Aukera bat da, esate baterako, ikasle-talde bakoitzak besteakaz kontakturik ez izatea bermatzea. Mugikortasuna horrela mugatzeak, egokitasunari buruzko eztabaida batzuk alde batera utziz (eta horiek ere ez lirateke faltako), buruko min asko ekarri ahal dizkie ikastetxeetako kudeatzaileei, antolakuntzari eta baliabideei dagokienez. Hipotesiak dira oraindik, baina mahaigainean daude. «Ea Jaurlaritzak argibide batzuk ematen dituen behintzat», dio aipatu dugun ikastetxe-zuzendariak.

LEHENBAILEHEN AURREIKUSI. Momentuz, Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak adierazpen bat plazaratu berri du, zeinean 2020/2021 ikasturtea oso berezia izango dela eta salbuespenezko neurriak hartu beharko direla jakinda, gomendatzen duen «udako oporrak baino lehen ikasturte hori prestatzea, planifikatzea eta antolatzea, ager daitezkeen agertoki desberdinei erantzuteko, inprobisazioak saihesteko eta ikasleei arreta egokia emateko».

Prozesu hori Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailak gidatu behar duela eta «hezkuntza-komunitate osaren» lankidetzagaz gauzatu

Hezkuntza

beharko dela dio Eskola Kontseiluak. Eta adierazpen orokor horren ostean, hainbat proposamen egiten dizkiete bai Administrazioari bai hezkuntzako eragileei.

2020ko ikasturtearen amaierari eta udari dagokienez, Kontseiluak proposatzen du, besteak beste, «ikasturte hau amaitutzat eman aurretik ikasle bakoitzak bere egoera pertsonal eta akademikoari buruzko diagnostiko indibidual, erreal eta zehatza izatea, eta, horren arabera, hurrengo ikasturterako esku hartzeko eta indartzeko neurri pedagogikoak eta antolakuntzakoak planteatzea, beharrezkoa bada; bereziki, egoera hori gogorren pairatu dutenei». Horrez gain, Kontseiluak egokitzat jotzen du ikastetxe bakoitzak 2020-2021 ikasturteko plangintza espezifikoa egitea, eta curriculum-egokitzapenak areagotu egin daitezkeenez, eta horiek «baliabide berriak» beharko dituztenez, «antolaketakoak edo pertsonalak izan», aurrez aurreikustea.

IKASTURTE HASIERA: IKASLEEI ARRETA BEREZIA. Behin ikasturtea hasita, ikastetxe bakoitzean martxan jarriko den planak «ikasleen harrera pertsonala eta arreta emozionala bereziki zaintzeko» proposatzen du Eskola Kontseiluak, «inklusioarekin eta aniztasunaren tratamenduarekin lotutako programa guztiei arreta espezifikoa ematea» barne. Horretarako hartzen diren bideez familiak informatzeko ere gomendatzen dute.

Hezkuntza indartzeko banakako planak areagotzea da Kontseiluak egindako beste proposamenetako bat. Euskarari dagokionez, «kontuan hartuta kasu askotan euskararekiko harremana ikastetxean gertatzen dela, funtsezkotzat jotzen da epe labur, ertain eta luzerako errefortzu-neurriak diseinatzea, ikasleek beren komunikazio-gaitasuna euskaraz garatzen jarrai dezaten».

METODOLOGIAK EGOKITU. Bestalde, eta COVIDen ondoren hezkuntzarik onena bermatzeko beharrezkoak diren aldaketei dagokienez, «aldaketa metodologikoak» proposatzen ditu Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorrak, «ikaskuntza-esperientzia presentzialak eta online ikaskuntza-esperientziak barne hartzen dituzten

Ikasturte berrian egokitzapen ugari egin beharko dute ikastetxeek.

«Metodologia aldaketak» beharko dira COVID osteko hezkuntzan.

proposamen metodologiko berriak abiarazteko eta pilotatzeko». Ordutegiak malgutzea ere proposatzen dute, «egoera desberdinei eta familia-kontziliazioko premiei erantzuteko espazioak eta denborak antolatzeko». Beharrezkoa denean ikastetxeak irekitzea komenigarritzat jo dute, baita «denborak antolatzeko formula berriak bilatzea» ere, «sormenezkoak eta berritzaileak, ikasle guztien premiei erantzungo zaiela bermatzeko».

Ezin ukatu inoiz ez bezalako erronka duela aurretik hezkuntzamunduak. Eta ezin ukatu, ikasturte honen amaieran ez bezala, administrazioak eta eragile denek batera jardutea litzatekeela horri aurre egiteko denok eskertuko genukeen lehenengo urratsa.

Biotz Alai plaza, 48991 GETXO • 648 257 572 • @realenglishgetxo •

Nagirik ematen ez duen ingelesa

Hizkuntzaren orainean oinarrituta, metodologia berritzaileak eta teknologia berriak erabiltzen dituen proiektua da Real English Getxo akademia.

Bertokoen ahulgunea ingelesean ahozkotasuna dela uste du Carlos Edward Rey-Surmanek.

Algorta erdi-erdian, Biotz Alai plazan lekututa dagoen ingeleseko akademia da Real English Getxo. Bertako ugazaba den Carlos Edward Rey-Surmanek dioenez, bere proiektua «berezia» da, «ezohikoa». Azaldu duenez, eskolen arteko komunitate bat sortu dute eta kideak ez dira «ohiko» klase batera joaten, «esperientzia bat da, zorrotza baina gertukoa». Eskoletan ez dituzte testuliburuak soilik erabiltzen, eta gazteek komunikatzeko erabiltzen dituzten kanalak baliatzen dituzte ikaskuntzan aurrera egiteko, hala nola Instagram, Youtube eta Tiktok. «Denetan kanalak sortu ditugu eta horiei zuzendutako edukiak sortzen ditugu». Era berean, datorren ikasturterako proiektu berri bat jarriko dutela martxan iragarri du irakasleak, «anbizio handikoa da, baina momentuz *top secret* da».

ZERK EZBERDINTZEN DITU? Ohikoa den kalifikazio numerikoa baztertzen dute akademia honetan, «are gehiago, guztiz kontra gaude», dio Edwardek. Azaldu duenez, bertokoen ahulgunea ahozkotasuna da, eta horretan jartzen dute indargunea Real English Getxon. «Eztabaidatu, barre egiten dugu, hunkitzen gara, negar egiten dugu... Ohiko egoerak bizi egiten ditugu hemen. Jendeak ikasi egiten du konturatu barik»,

TEKNOLOGIAK

Gazteek darabilten kanalei begirako edukiak sortzen dituzte.

azaldu du adituak. Iragarri duenez, askotariko erreferentzia kulturalak baliatzen dituzte horretarako, hala nola musika eta filmak. Horri esker, eta eskakizun maila dela eta, Edwardek azpimarratu du bere ikasleen %98,4k azterketa ofizialak gainditu duela; «denok dugu egun txar bat, azterketa garaia denean batez ere», dio broma artean. Gakoa: energia, esperientzia, motibazioa eta etengabeko berrikuntza.

FADURA LHII IKASTETXEA

Bizkerre, z/g. 48991 GETXO • 944 069 000 • instituto@fadura.eus • www.fadura.eus

Esperientziaren bermea

Fadura LHII ikastetxeak 40 urte baino gehiago daroatza kalitatezko zerbitzua eskaintzen, eta eskualdean enpresen eta inguruaren erreferentea izatea lortu du. Gazteak gizatasunez eta arlo teknikoan prestatzea da helburua, jendartean integra daitezen bai lan-mundura bai beste ikasketetara sartzeagaz batera. 1980tik daroa ikastetxeak eskaintza zabala ematen lanbide-heziketan: goi- eta erdi-mailako heziketa-zikloak, eskaintza partziala, heziketa duala, enpleguarako formakuntza, zereginen gela... Algortako Fadura inguruan dago, garraio-zerbitzu publikoetatik hur. Irakas-baliabide eta instalazioei dagokienez, ikastetxeak kalitatezko ekipamendua eskaintzen du, eta ikasleen eta enpresen asebetetzea urtez urte handitzen doa, horien beharrizanei erantzunez.

Balioetan heztea da Hezkuntza Proiektuaren oinarria, etengabeko harrera lagunkoiaren, beti hizketa-giroaren, ulermenaren eta berdintasunaren alde agertzen da Fadura LHII. Ugaritasuna ikasteko aukeratzat hartuz, eta dibertsitateari eskainitako arreta da pertsonekiko eta komunitatearekiko duen konpromisoa.

Modu berean, ikasleen prestakuntza-mailagatik, formakuntza-eskaintza zabalagatik, laneko segurtasunagatik eta inguruarekiko konpromisoagatik, kalitate eta etengabeko hobekuntzarako kudeaketagatik eta eskualdean enpresa eta inguruaren erreferentea izateagatik gura du jendeak ikastetxea ezagutzea.

Hezkuntza-eskaintza

Goi-mailako Heziketa-zikloak
- Mantentze-lan elektronikoa
- Fabrikazio mekanikorako produkzioaren programazioa
- Haur-hezkuntza.
- Osasun-dokumentazioa eta administrazioa
- Gizarte eta kirol animazioko eta irakaskuntza

Erdi-mailako Heziketa-zikloak
- Telekomunikzioa-instalazioak
- Mekanizazioa
- Karrozeria
- Ibilgailu automobilen elektromekanika
- Erizaintzako laguntzailea
- Osasun-larrialdiak

- **Zereginen gela**
- **Lanean zein langabezian daudenentzat «Lanbide» ikastaroak**
- **ULHI: Urrutiko eskaintza osasun-larrialdetan**
- **Lan-konpetentziak egiaztatzeko prozedurak**
- **Izena emateko:**
  - Online: www.fadura.eus
  - Idazkaritzan bertan ere izena eman daiteke, goizeko 08:30etik 13:30era arteko ordutegian.

Untzaga Ibaia kalea, 1. 48160 DERIO • 944 034 060 • info@txorierri.net • www.txorierri.net

40 urte Txorierriko eta Bizkaiko talentua garatzen

www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako ikastetxea

1979-80 ikasturtean jaio zen Derioko Politeknika Ikastegia Txorierri, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan kalitatezko irakaskuntza-eskaintza egiteko. Ordutik gizartearen talentua osatzea dute helburu, «pertsonen garapenean oinarrituta».

Berrogei urtean gizartea, teknologia, hezkuntza eta Lanbide Heziketa asko aldatu dira. Hala, argi esan daiteke hasierako eta gaur egungo Txorierri oso ezberdinak direla. Garatze-prozesuen bitartez, bi espezialitate izatetik (Matrizeria eta Elektrizitatea) sei izatera igaro dira (Fabrikazio Mekanikoa, Diseinua, Robotika, Telekomunikazioak, Marketina eta Ingurumena). Era berean, Batxilergoa ere hartu dute oinarri gisa, unibertsitateari begira uneoro. Hala, hamar talde izatetik hamazortzi izatera pasa dira, etengabeko inbertsioak egin ondoren: laborategiak, instalazio berriak, kontratazioak...

Hezkuntza-eredu metodologikoak aldatu egin dituzte denbora-tarte honetan, bereziki Lanbide Heziketan. Hala, ikaslearen arduran oinarrituta, konpetentzia tekniko eta pertsonalak garatzen laguntzen dute orain, bakoitzaren talentua garatuta. Horretarako, Eusko Jaurlaritzaren ETHAZI proiektuan murgilduta dago Txorierri, horren inplementazioan aitzindariak direnak. Enpresekiko harremanetan ere, derrigorrezko praktikez gain formakuntza duala garatu dute. Nazioarteko Departamentua ere sortu dute, ikasleek Erasmus+ proiektuetan parte hartzeko aukera izan dezaten. Urtero atzerrian lan egiteko 50 beka kudeatzen dituzte euskal enpresen atzerriko lantegietan jarduteko.

Enpresetako teknologiaren garapena hain handia eta azkarra da non Lanbide Heziketak ezin duen erantzun azkarrik eman. Hori dela eta, gaur egun espezializazio programa bitan parte hartzen du Txorierrik, trokelgintza eta automatizazio aurreratuan. Ikasleez gainera, irakasleek ere etengabeko formakuntza jasotzen dute berrikuntza eta garapeneko proiektuetan parte hartuta. Euskarak ere bere leku preferentea hartzen hasi da ikastetxean. Erdarazko eredu batetik euskal ereduetarako bidean dago orain, Batxilergoan eta Lanbide Heziketan.

Kudeaketak ere garrantzia du ikastetxean. Arlo horretan, aipagarria da 2005. urtean lortu zuten urrezko Q-a (Kudeaketa Euskal Saria) eta joan den ikasturtean bertan eskuratutako zertifikazioa AENORen ISO 9001 arauaren arabera.

POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.
Centro de Educación Secundaria y Formación Profesional
Lanbide Heziketa eta Bigarren Irakaskuntzarako Ikastetxea

Untzaga Ibaia Kalea, 1
48160 – DERIO

Tel.: 94 403 40 60
Fax: 94 403 40 61

info@txorierri.net
www.txorierri.net

BATXILERGOA
• Zientziak Batxilergoa

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Mekanizazioko Teknikari

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK
• Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikari
• Produkzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikari
• Automatizazio eta Robotika industrialeko Goi-mailako Teknikari
• Telekomunikazioa eta Informatikako Goi-mailako Teknikari
• Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketako Goi-mailako Teknikari
• Ingurumen Hezkuntza eta Kontrol Goi-mailako Teknikari

40 urte, milaka txori

Naiomi Matthews Borroka-kirolaria

«Kideekin entrenatzeko aukera izan beharko genuke guk ere»

Ia egun osoa tatamiaren gainean taldekideakaz entrenatu ahal izatetik etxean konfinatuta egotera igaro da Naiomi Matthews hilabete bi hauetan. Egoerak entrenamenduak egokitzera behartu ditu borroka-kirolariak, beste kide batekaz entrenatu ahal izatea ezinezkoa izan baita denbora-tarte honetan.

IKER RINCON MORENO ▶

Borroka-kirola bizitzeko modu bat da Matthewsentzat. HODEI TORRES

Borrokalari peto-petoa da Naiomi Matthews Martín getxoztarra. Grappling, jiu-jitsu brasildarra zein borroka olinpikoan aritutakoa da, baita nazioarteko domina asko lortutakoa ere. Horretarako, lan handia egin behar izaten du egunero, sasoian egoteko. Hala ere, COVID-19aren pandemiak bat-batean bere entrenatzeko errutinak moldatzera behartu du eta, orain, Espainiako Gobernuaren argibideen zain dabil borroka-kiroletan kideakaz entrenatzeko aukerak zeintzuk diren jakiteko.

Bi hilabete baino gehiago eman ditugu konfinatuta. Zelan hartu zenuen martxoaren 14tik aurrera etxean itxita egoteko neurria? Hasieran oso gogorra izan zen, ez nekielako zer egin, ezta nola jarraitu entrenamenduak ere. Bigarren astean zehar, aldiz, *Rodri* nire entrenatzailearekin dena antolatzen hasi eta errazago egin zitzaidan ariketak egitea.

Borrokalaria izanda, zelan entrenatu ahal izan duzu denbora tarte horretan? Saiatu naiz sasoia ez galtzen. Entrenatzaileak tatami-zatiak utzi dizkit eta lau metro koadrotan entrenatzen ibili naiz etxean. Prestatzaile fisikoak errutinak bidaltzen dizkit eta ahalik eta ondoen egiten ditut. Gainera, entrenamendu batzuk *Rodri*k Zoom-en bidez gidatzen dizkit, eta Riders Fight Club-eko beste taldekideekin batera norberak bere etxetik egiten ditugu.

Zelako errutinak izan dira horiek? Egunero hiru entrenamendu egin ditut. Bakarrik egonda oso zaila da teknikak praktikatzea; hala, gehienetan prestakuntza fisikoa egin dut. Hala ere, Zoom-en bitartez jiu-jitsuko teknikak landu ahal izan ditut eta luzaketak egiteko aprobetxatu dut yoga.

Entrenatzeaz gainera, ordu asko etxean geldirik egoteak dieta egokitzera behartu zaitu? Bai, dieta oso garrantzitsua da ondo entrenatzeko eta ondo sentitzeko, horregatik dieta egokia mantentzen dut, ohitura ez galtzeko.

Maiatzaren 2tik aurrera kalera ateratzeko baimena izan genuen. Arnasgunea izan zen hori zuretzat? Astean zehar etxean entrenatzen jarraitu dut, baina egun batean kalera joaten naiz. Egia esanda ez ditut asko aldatu errutinak, etxean lekua izanda arduratsua izan behar dut.

Zure kasuan, grappling, jiu-jitsu brasildarra eta borroka olinpikoan aritua izanda, oraindino ezinezkoa zaizu *uke* edo beste pertsona batekaz entrenatzea. Zer deritzozu horri? Txarto, ez da bidezkoa. Futbol-jokalariak taldekideekin entrenatu ahal dira eta hori ondo egiteko elkar ukitu behar dute; ondorioz, guri ere baimena eman beharko ligukete. Ukipen-kiroleko federazioek proposamen asko bidali dizkiote gobernuari bikoteka entrenatu ahal izateko, baina oraindik ez dute erantzunik jaso.

Egokitzapena

«Etxean taldekiderik gabe egonda oso zaila da teknikak praktikatzea; hala, prestakuntza fisikoa lantzen dut gehienbat»

Entrenamenduak

«Futbol-jokalariak taldekideekin entrenatu ahal badira, guk ere horretarako baimena izan beharko genuke»

Onurak

«Borroka-kirolaren bidez balio asko ikasten dira eta laguntza positibo bat da pertsonarentzat; oso komenigarria da»

Noiz uste duzu entrenatu ahal izango zarela normaltasunez? Ez dakit, baina espero dut ahalik eta lasterren izatea. Txapelketa batzuk aurten izango direlakoan, ondo entrenatu behar dut.

Faltan botatzen duzu tatami batera igotzea? Egunero. Niretzat kluba etxea bezalakoa da; normalean egun osoa pasatzen dut tatamian, goizetik gauera.

Zer da gehien faltan botatzen duzuna egunotan? Taldekideak. Oso zaila da motibatzea bakar-bakarrik entrenatzen duzunean. Gainera, ezin ditudanez teknika gehienak praktikatu, uste dut ahaztu egingo zaizkidala.

Zelan definituko zenuke borroka-kirola? Bizimodu bat da, tatamian familia bat aurkitzen duzu, eta munduan zehar, beste tatami batera joaten bazara, ziur aski haietariko bat izango bazina bezala hartuko zaituzte. Eta ez hori bakarrik; borroka-kirolaren bidez balio asko ikasten dira eta laguntza positibo bat da pertsonentzat, hots, autoestimua eta konfiantza areagotzen ditu. Gainera, errespetua izaten ikasten da, ez irakasleei bakarrik, baita aurkariei ere. Horregatik, txikitatik honelako kiroletan murgiltzea oso komenigarria dela uste dut. ◀

Ander Olazabalaga Basamortu Taldeko kidea

«Futbolaren bidez herri-izaera bultzatu nahi dugu»

Ondoren datorrenak ez du koronabirusagaz lotura zuzena, zeharkakoa baino. Erandion, konfinamendu-denbora baliatu dute batzuek lehenagoko ideia bat gauzatzeko: futbola beste era batera ulertuko duen kluba sortzeko. Basamortu Taldea du izena, eta Ander Olazabalaga kideak eman digu beraren berri.

UNAI BREA ▶

Basamortu Taldeko zenbait kide. Aurreko ilaran, ezkerretik hasita bigarrena da Olazabalaga. HODEI TORRES

Ofizialki Basamortu Erandio Futbol Taldea izena badu ere, sortzaileentzat Basamortu Lagun Taldea da klub sortu berria. Federazioan izena emanda daude, eta datorren denboralditik (normaltasunez jokatzerik badago, behintzat) Hirugarren Lurraldeko Mailan jokatuko dute. Aldi berean, futbolean hain ohikoak ez diren baloreak zabaldu gura dituzte, Ander Olazabalagak azaldu digunez.

Badago zuen historia labur kontatzerik? Konfinamenduan sortu dugu, baina ideiak bazuen urtebete edo urte eta erdi. Oinarria da Erandion, gehienok, futbolean jokatzen dugula lehenengo bakoitzaren eskolan, eta gero klub batean. Hor egiten duzu ibilbidea, eta halako batean helduen mailan zaude. Orduan helburua da emaitza onenak ateratzea, eta azken urteetan gertatu da herriko jendeak aukera galtzen duela bertan jokatzeko, emaitzak hobetzearren kanpoko jokalariak ekartzen direlako, eta herri-izaera galtzen da. Klub berria sortzearen helburua da herriko jendeak berton jokatzeko talde bat izatea.

Nortzuk sortu duzue, zehazki? Talde bat egon zen Erandion, helduen kategoriakoa baina B mailakoa, kuadrilla izanda eta Messi izateko helbururik gabe, kirola egiteagatik jokatuz, oso ondo ibili zena eta mailaz igo zena. Talde-izaera sendoa sortu zen, eta elkarrekin jokatzen segitu ahal izateko sortu da Basamortu, ohiko bideetatik joz ezin izango zutelako elkarrekin jarraitu. Beti poteoan bota izan den kontu bat da, azken urte eta erdian asko aipatu duguna. Eta orain sortu da, konfinamenduak gestioak egiteko denbora sobera eman digula aprobetxatuta. Aspalditik ideia aipatzen genbiltzanok bilera telematiko bat egin ostean, paperak bete genituen, Federazioan izena eman genuen, eta jada, ofizialki, Bizkaiko Lurraldeko 3. mailako taldea gara. Jokalariak (ni ez naiz horietako bat, klubeko kidea besterik ez) orain beste talde batzuetan daude (entrenatu gabe, pandemiagatik), baina datorren denboraldian Basamortun jardungo dute.

Beste balore batzuk aipatu dituzu. Zeintzuk? Gaur egun zabalduen dagoen futbol-ereduaz bestelako zerbait egin nahi dugu. Ez dugu taldea sortu Bizkaiko onenak izateko edo mailaz igotzeko, baizik eta herriko kirolariak, kasu honetan futbolariak, batera egoteko, eta klubak berak herriari ere ekarpenen bat egiteko: herri-izaera bultzatzea, euskarari garrantzia ematea... Badaukagu grina hori ere, elkarrekin euskaraz egiten dugunok gutxiengoa izan arren, betidanik futbol-mundua erdaldun ezagutu dugulako, Erandion gutxienez. Saiatuko gara zuzendaritzan eta batzarretan euskaraz egiten, eta kanporako egiten diren gauzetan, adierazpenetan, elebidun gutxienez, euskaramaila duina erabilita. Jokalarien artean ere, eta entrenatzailearekin, ahalik eta gehien euskara erabil dadin saiatuko gara. Badakigu zaila dela, jendea ohituta dagoelako futbolean jokatzen duenean erdaraz egiten.

Basamortu izena zergatik?

«Erandion badago pike sanoa», dio Ander Olazabalagak, «edo batzuetan ez hain sanoa: Erandiogoikoan Altzagari beti esan diote Desierto, eta ez tonu onenean, ze tonu neutroan balitz gaitz erdi. Altzagakooi ez zaigu gustatzen hori. Horri buelta emateko, eta Desierto izena geureganatuz, taldeari Basamortu izena ipintzea erabaki dugu. Aspaldi pentsatuta genuen hala egitea».

Zenbat zarete? Futbolari-talderako baditugu hogei lagun ziurtatuta, eta beste zazpi inguru gaude, jokalariak ez garenok. Gehienak Altzagakoak, Astrabudukoren bat ere bai. Orain bi aste hasi genuen bazkide-kanpaina, eta ehun bat bagara dagoeneko. Esan beharra dago ez daukagula dirurik eta futbolean hasteko diru nahikotxo behar dela: inskripzioak, ekipamenduak... Jokalariek hartu dute konpromisoa eta diru nahikotxo ipini du bakoitzak jokatu ahal izateko. Erandioztarrek Erandion jokatu ahal izatea da asmoa, eta arraroa bada ere hori ez da hain erraza gaur egun.

Non jokatuko duzue? Arteagako futbol-zelaian, Erandiogoikoan. Udalarena da. Hori bai, entrenatzen hasten garenerako, momentuz behintzat, gutxi gorabehera gaueko 21:30etik 22:30era egiteko baino ez daukagu baimena. Talde asko dabil han, eta ez dago lekurik.

Zer beste asmo duzue, futbolean jarduteaz gain? Esate baterako, jai-batzordean parte hartzea, eta urtean zehar futbolaren aitzakiaz beste gauza batzuk egitea. Adibidez, futbolaren inguruko jardunaldiak. umeentzako egun bereziak... Ekintza kulturalagoak. Oraindik ez dugu ezer zehatz gogoan. ◀

Aritza Bergara Alustiza Idazlea

«Idazleok bakardadean lan egitera ohituta gaude»

Konfinamenduan giltzapetuta egon gauden honetan, Aritza Bergara Alustizak *Manos ensangrentadas* eleberriaren 63 pasarteak partekatu ditu bere jarraitzaileakaz, egun bakoitzeko bana. Orain, laguntza-kanpaina bat jarri du martxan lan hori publikatu ahal izateko, beste hainbat proiektugaz batera.

IKER RINCON MORENO ▶

Denbora ez da arazoa izan konfinamenduan, «baizik eta burua prest izatea», Bergararen ustez. HODEI TORRES

Konfinamendua ezberdina izan da batzuontzat eta besteontzat. Kultura-sortzaile askorentzat, izan ere, kalera atera ezin izatea buruari eragin eta hainbat proiekturi ekiteko baliagarri izan zaie. Berbarako, Aritza Bergara idazleak bere azkenengo eleberria amaitu du hilabete bi hauetan, beste bat zuzendu eta aurrekoa gizarteratu, online bada ere.

Zer sentitu zenuen konfinatuta egon beharko ginela jakin zenuenean? Niretzat gogorra izan da. Etxean arrisku-taldeko pertsona bat dago eta lana ezin utzi, bertan ditugun pertsonek, errefuxiatuek kasu honetan, arreta behar zutelako. Beraz, erabakia hartu nuen eta lanera joan nintzen bi hilabete luze hauetan; bikotekidea eta semeak leihotik ikusi baino ez ditut egin.

Denbora-tarte honetan, egoitza batean lan egiteaz gainera, eleberri bat idazten ibili zara. Zelakoa izan da esperientzia? Konfinamenduan gauza asko egin ditudalakoan nago. Alde batetik, idatzita baina argitaratu gabeko *Manos Ensangrentadas* partekatu dut nire irakurleekin sare sozialetan, egunero atal bat jarriz. Baina honekin batera, *Jentilak* liburuaren bigarren zatia zuzendu dut eta hirugarrena, erdi eginda neukana, bukatu ere.

Egia esanda, idazleok bakardadean lan egitera ohituta gaude eta ez zait gehiegi aldatu bizitza idazteko momentuan. Hori bai, beste gauza guztiak alde batera utzi behar.

Konfinamenduak sormenerako aukerak handitu dizkizu? Ez dakit... Handitu ez nuke esango, baina egunak zer-nolako luzera duten ikusteko aukera eman dit. Zailena ez da denbora izatea, burua prest izatea baino. Berbarako, ezin izan dut ezertxo ere ez irakurri konfinamendua iraun bitartean. Idazteko, aldiz, ez dut inolako arazorik izan. Argi nuen zer zen kontatu nahi nuena eta burutik atera eta idaztea besterik ez nuen egin behar.

Zaila da gaur egun idazle modura jardutea? Bai, oso. Eta bizitzen ari garen arazoarekin, askoz zailagoa. Durangoko Azoka, esate baterako, guztiz ezberdina izango da. Eta azoka guztiak, eta aurkezpenak...

Eta horretaz bizitzea? Nire ustez oso zaila da, orokorrean. Gainera, nire kasuan, nik egiten dut dena, autoekoizle gisa. Ez da idaztea bakarrik; maketazioa, portada aukeratu, banaketa nola egin prestatu, aurkezpenak egin... Den-dena nire esku dago. Eta zailena komunikabideetan lekua hartzea da. Gezurra dirudien arren, oso zaila da egunkarietan, telebistan eta horrelakoetan ateratzea zure atzean inolako argitaletxerik ez baduzu. Eta, gainera, jendeak ezagutzen ez bazaitu, orduan eta zailagoa izan ohi da liburuak saltzea eta, ondorioz, horretaz aritzea eta bizitzea. Nire kasuan, sare sozialetan egiten dut esfortzurik handiena nire lana ezagutarazteko, hala nola Facebook eta Twitterren.

> Orain arte publikatu dituen liburu denak auto-ekoiztutakoak dira izan dira: «Idaztea, maketatzea, banaketa egitea eta aurkezpenak nire esku daude». Horrez gainera, zailena hedabideetan zure lana aurkeztea dela adierazi du Bergarak.

Kultura-sortzaile asko diru-sarrerarik gabe geratu dira COVID-19aren krisia dela eta... Argi dago egoera zaila izan dela guztiontzat. Baina moldatu behar, ez dago besterik. Nire kasuan, adibidez, ez nekien zelan publikatu webgune batean. Hala ere, azkenean, konfinamenduak iraun duen bitartean *Manos ensangrentadas* eleberriaren atal bana egin dut publiko egunean behin, Eguzkilore Liburuakeko webgunean. Sare sozialetan beste gauza batzuk egin ditut baita ere jendearengana ailegatzeko. Bestalde, liburu-dendatan ezertxo ere ez duzula saltzen? Orduan salmenta zuzenera jo. Aldaketak egin ditugu eta egin beharko ditugu gure burua ezagutarazteko eta aurrera egiteko.

Zelako harrera egin dio jendeak sareetan eskegi duzun eleberri horri? Irakurleekin nire lana partekatzeko aukera polita zela uste nuen, batez ere konfinamenduan tartetxo bat irakurtzeari eskaini eta denbora arinago pasarazteko asmoz. Gainera, kasualitatez eleberriak 63 atal ditu eta konfinamendua arintzen hasi zenean egin nituen publiko denak. Horri esker, gainera, paperean argitaratzeko eskaera piloa egin didate eta azkenean *crowdfunding* kanpaina bat abiatuko dut *Manos ensangrentadas* kaleratu ahal izateko.

Gobernuak emango dituen diru-laguntzak arazoari aurre egiteko nahikoak direla uste duzu? Dirulaguntzak, sortzaileei baino, kultura-enpresa handiei bideratuta egongo dira. Nire ustez badaude beste modu batzuk gauzak egiteko, enpresei baino pertsonei laguntzeko. Baina horretarako kultura begiratzeko modua aldatu behar da guztiz. Eta hori ez da gertatuko, ziur nago. ◀

Ainhoa Ortells Arte-kudeatzailea

«Irudimenaren uda izango dela uste dut, uzten badigute»

Arte Ederretan lizentziatua da Ainhoa Ortells algortarra, eta arteari eta kulturari lotutako ibilbide oparokoa. Sektorerako oso garai latza dugun honetan (badago guztiz gozoa denik?), sormenerako bestelako bideak bilatzen jardun du azken asteotan Ortellsek, bide batez eremu horretan dabiltzanen prekaritatea salatuz.

UNAI BREA ▶

konfinamenduan, oraindik ere ikusbide dagoen Lau Horma Artean erakusketa birtuala sustatu du Ortellsek. HODEI TORRES

Pandemiaren ondorioz ezarri diren neurriak errespetatuta ere, kulturarako eta arterako gaur egun baimenduta daudenak baino gune gehiago sortzeko aukerak badaudela aldarrikatzen du Ainhoa Ortellsek. Hobe hori, betiko legez sektorea krisiaren biktima handienetakoa izatea baino.

Sektore asko kolpatuak izan dira epidemia honekin. Baina kultur sektoretik datorren mezua da azken putza zaretela... Bada, bai, normalean honetan mozketak egiten dira beti. Kasu honetan, etxean sartuta geundela kultura pilo bat erabili da, baina orain ere mozketak daude zentzu askotan, adibidez Getxon zehazki, uztailera arte ez da egongo kultur ekimenik, nahiz eta BOEk esaten duen egotea badagoela. 2008an ere, krisiaren kolpe handiena guk jasan genuen.

Kolpe hau askoz latzagoa da, ordea. Bai. Kasu honetan ez da diru-kontu hutsa, egin ezin izatea ere badago. 2008an salmentak jaitsi ziren pilo bat, baina gutxienez bazegoen erakusketak egitea, kaleko ekitaldiak... Orain, 400 pertsona bildu ahal dira kalean, kultura erakusten duten erakustokietan uste dut %30 bakarrik sartu ahal dela. Hala ere badaude beste aukera batzuk, eta badirudi horiek ez dituztela kontuan izan nahi.

Esaterako? Online gertatzen ari diren kontu guztiak, batetik. Bestetik, aurrekoan ikusi nuen Madrilen gertatzekoa den gauza bat: 2. fasean sartzen direnean galeria batek proposatu du jendea kalean biltzea eta artista bakoitzak bere obra galeriatik kalera ateratzea eta aurkeztea. Denak distantzia egokira, maskarekin eta abar, baina badago egitea, kontua nahi izatea da. Eta badirudi ez dagoela nahirik.

Artista askok eduki duzue ekimena gauzak egiteko. Zuk adibidez egile asko biltzen dituen Lau Horma Artean erakusketa birtuala sustatu duzu, baina horrek ez du jatekoa ematen. Jakina. Hori egiten dugu nik uste dudalako udalek, edo gobernuek, esan beharko luketela «tira, aldatuko dugu erakusteko era». Ez dut politikan sartu nahi baina Getxoko EH Bilduk eman du, adibidez, halakorik egiteko aukera. Jakina, euren izenean, eta uste dut Getxoren izenean egin beharko litzatekeela. Halako erakusketak, online egin daitezkeenak, online ateratzea, eta ordaintzea noski, azken batean lanean gaude.

Greba-deialdia ere egin zen kultur sektorean. Eta nik uste dut hemen arrakasta izan zuela. Ez zen ezer argitaratu online, webguneak itxi ziren, eta abar. Zergatia izan zen Espainiako Kultur ministroak esan zituen hitzak, «*la cultura es importante pero comer es mas importante*». Eta erantzuna izan zen jende guztia dabilela artea eta kultura erabiltzen konfinamenduan bere antsietatea arintzeko, eta zuk diozu hau ez dela hain beharrezkoa? Bada, agian, etxean sartuta egonda, beste gauza batzuk baino garrantzitsuagoa bada.

Kolpe bikoitza

«2008ko krisian salmentak jaitsi ziren, baina gutxienez bazegoen erakusketa bat egitea, kaleko ekitaldiak... Orain, berriz...»

Administrazioa

«Udalek, edo gobernuek, esan beharko lukete «aldatuko dugu erakusketak egiteko era»; eta ordaintzea noski, lanean gaude eta»

Jaiak zelan?

«Kolpatuak izan diren sektoreen artean lan egitea eta jaiak antolatzea badago, lau ideia edukita, jende-pilaketarik gabe»

Ematen du etxean sartuta egoteak astindua eman diola kulturari. Gauzak egiteko modu berriak bilatzea, normalean «artista» kategorian sartzen ez diren askok barruko artista ateratzea, kontzertuak balkoietan... Artearen funtsa da, niretzat, gizartean jazotzen den guztia jasotzen dugula, sentimendu horiek guztiak jasotzen ditugu eta gero forma ematen diegu, artelan batean. Lau Horma Artean erakusketan igarri dut artista gehienek sortzeko ohiko modua aldatu dutela, denek egin dute zerbait gertatzen ari zena islatzeko. Bideoa batez ere. Uste dut sortzaileok, egoera honetan, aukera polita izan dugula gauza berriak sortzeko.

Jairik gabeko uda dator. Nik pare bat ideia badut, ez dut ozen esan nahi oraindik inork ez bereganatzeko. Baina uste dut kolpatuak izan diren sektore askoren artean lan egitea badagoela, eta jaiak antolatzea badagoela. Portu Zaharreko jende pilaketa ezin izango da gertatu, argi dago, baina agian bueltatu beharko gara jai herrikoetara, eta jai bakoitzean herrikoak bakarrik egotera. Ez dut uste hain zaila denik; lau ideia edukita eta herrikoekin lan eginda badago jaiak antolatzerik. Irudimenaren uda izango dela uste dut, uzten badigute. ◀

«Egoera honek gure lan-baldintza

prekarioak agerian utzi ditu»

COVID-19aren agerpenak kultur ekitaldien atzerapena eragin du, baita beste hainbat ekimen bertan behera utzi ere. Orain, uda ate joka dagoela, sasoiko jaialdien errealitateari so daude kulturari lotutako behargin asko.

ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO ▶

Algortako Portu Zaharrean nago oraingoan, termo batetik hartutako kafea eskuetan, kontzertu bat kotxe baten barruan sartuta ikusteko sarrerak erosten saiatzen ari naizela. Une honetan zuzeneko horien atzean lanean ibiltzen diren ezkutuko profesionalez oroitu naiz... Hala, kontzertuen B alde hori osatzen duten langileak ekarri nahi izan ditut oraingoan orriotara.

Zein da zuen ofizioa eta zein da bizi duzuen egoera une honetan? ITZIAR CASADO: Nik nire kontura egiten dut lan; langile autonomoa naiz soinu- eta argi-teknikari moduan.
ENDIKA PRINCIPE: Soinu-teknikaria naiz; joan den martxoaren 13tik lan-etenaldian nago, inongo lan-aukerarik gabe.
JORGE PERALES: Zuzenekoen soinu-teknikaria naiz, autonomo moduan baita ere eta orain lan barik nabil.
ALAINE ARZOZ: Argi-teknikari gisa egiten dut lan nik. Orain, aldiz, lanik eta diru-sarrerarik gabe nago sektorean zerbait egin ahal izan arte.
MIKEL MORENO: Ikus-entzunezko logistikaren enpresa bateko ekoizpen-arduraduna naiz. Normalean izan ohi ditugun lan guztiak bertan behera geratu dira.

Badakit ohiko lana aurrera ateratzea ezinezkoa izan zaizuela, baina beste modu batean aurrera egin duzue? I.C.: Bai, zorionez nire aldetik, Ikus-entzunezko eta Ekitaldi Produkzioko ikasketak egiten ari naiz, eta geldiune honek ikasketak eguneratzeko eta ikastaroa bukatzeko balio izan dit.
E.P.: Bai, noski. Materialaren mantentze-lanak egin ditut eta online bidezko ikastaroak ere burutu ditut.
J.P.: Bai, une hau sektorean gabiltzan langileok antolatzeko erabili dugu; zehazteke dagoen elkarte edo sindikatu moduko bat sortzeko asmoa dago.
A.A.: Nire kasuan, dokumentazioa prestatzen ibili naiz, hala nola planoak eta baldintza teknikoak, geroago izango diren antzezpen atzeratuetarako.
M.M.: Hasierako asteetan bertan behera geratzen zen lanaren kudeaketa egiten egon ginen. Bestalde, zerbitzu berri batzuk ematean sakondu dugu, hala nola *streaming*-arekin zerikusia duten gauzak egiten.

Zelan ikusten duzue egoera? I.C.: Oraingo egoera zaila ikusten dut. Uda izaten da lan handien dugun unea eta momentuz programatuta genuen lana bertan behera geratu da. Ez dut uste laster bueltatuko garenik lehengo egoerara, oso zaila izango da aurretik genuen normaltasuna berreskuratzea.
E.P.: Azkenengoak izango gara «normaltasunera» bueltatzen.
J.P.: Egoera honetan enpresa zein langile asko desagertuko dira, saihestezina da.
A.A.: Ez dakigu noiz itzuliko garen, ezta zein baldintzatan ere.
M.M.: Edukiera gutxiagorekin gauzak egiten hastea oso zaila izango da errentagarria izateko artista eta ekoizleentzat.

Uda da lan gehien pilatzen duzuen garaia; bada, zelan ikusten duzue aurtengo uda? I.C.: Aurtengo uda desberdina izango da. Batez ere, lanik ez denez egongo ez dugu diru-sarrerarik izango eta konfinamendua behin bukatuta ez dugu dirulaguntzarik jasoko.
J.P.: Argi dago aurretik ezagutzen genituen ikuskizun-ereduak oraintxe bertan ez direla bideragarriak, eta onartzen dugu. Hori dela eta, gure elkartasunik beroena helarazi nahi diegu egoera honetan arrisku handiena bizitzen ari direnei.
A.A.: Nik uste dut uda eta jai-denboraldi osoa ia erabat galduta daudela. Nire kasuan, iazko diru-sarreren herena baino gehiago udako hilabeteetan lortu nuen; aurten ez da horrela izango.
M.M.: Bagaude lanean jendeak modu seguruan kulturaz eta sorkuntzaz disfrutatu ahal izateko proposamen gauzagarriak egiten. Baina ikusteke dago horrek edukiko duen harrera.

«Kulturan gabiltzanontzako laguntzak egon dira, baina ez dira duinak ezta jasotzeko errazak ere»
ITZIAR CASADO
SOINU- ETA ARGI-TEKNIKARIA

«Gure sektoreak aldaketa bat behar du, baina gure lan-baldintzetan. Hori da aldatu behar dena»
ENDIKA PRINCIPE
SOINU-TEKNIKARIA

«Sektoreko langileok antolatzen hasi gara, elkarte edo sindikatu moduko bat sortzeko asmoz»
JORGE PERALES
SOINU-TEKNIKARIA

«Iazko diru-sarreren herena baino gehiago udan lortu nuen iaz; aurten, zoritxarrez, ez da horrela izango»
ALAINE ARZOZ
ARGI-TEKNIKARIA

«Edukiera gutxiagorekin gauzak egiten hastea oso zaila izango da, ez da errentagarria izango»
MIKEL MORENO
IKUS-ENTZUNEZKOEN EKOIZPEN-ARDURADUNA

Kulturak kolpe handia jaso du koronabirusa dela eta... Horri buelta eman ahal izango zaio? I.C.: Epe laburrean ez dut uste. Denbora luzera, aldiz, pentsatu nahi dut honi buelta ematea lortuko dugula. Zorionez, egoera honi esker jendeak ikusi ahal izan du gure gure lan-baldintzak prekarioak direla eta espero dut hori ez ahaztea eta hobetzeko bide bat irekitzea.
E.P.: Egoerak hobera jarraitzen badu, baliteke urte-bukaerarako kaleetan ekitaldi txikiak egin ahal izatea.
J.P.: Kulturara bideratuko ziren diru-partidak eta Alarma Egoeragatik bertan behera utzi direnak sektoreari laguntzeko bideratzea proposatzen dugu.
M.M.: Politika integralak egiten ez diren bitartean, bakoitzak bere aldetik aurrera egiteko proposatu diren neurriak partxeak baino ez direla deritzot.

Zuen arloa birsortu beharko dela uste duzue? Hau da, aurreko eredua birplanteatu beharko da? E.P.: Gure sektoreak aldaketa bat behar du, bai, baina gure lan-baldintzetan; hori da aldatu behar duguna. Gure lanaldiak ordu askokoak dira (14tik gora), gauez, jai-egunetan... Lan-baldintza duinak eskatzen ditugu, gure lanari egokituta dagoen lan-hitzarmen baten alde borrokatu behar dugu.
M.M.: Bai, baina ez soilik gure arloan; gizarte osoa aldatu eta moldatu beharko da. Orain arte bizi izan dugun bizitza ez da bideragarria. Ez bakarrik kulturan, baizik eta mundua nola ustiatzen dugun, nola kontsumitzen dugun, nola egiten ditugun harremanak, eta abar.

Askotariko laguntzak emango direla entzuten ari gara. Zuen arloan ere horrelakoak emango dituzte? I.C.: Egon badaude. Baina ez dira duinak ezta jasotzeko errazak ere. Espainiako Gobernuaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzez aparte badaude udal batzuek emango dituzten dirulaguntzak. Hau dena hasi zenean etenaldirako laguntza-eskaria egiteko aukera eman ziguten (661 euro ingurukoa).

Horren ostean beste laguntza batzuk atera dira, baina horiek jasotzeko lehenengoari (edo beste edozein laguntzari) uko egin beharko genioke. Gainera badaude zozketen bidez esleitzen diren dirulaguntza batzuk, baina horietarako aukera izateko beste guztiei ere uko egin behar diegu eta zoritxarra baldin baduzu eta zozketa ez bazaizu tokatzen laguntza barik geratzen zara.
E.P.: Alarma Egoera amaitzen denean, lan gabe eta dirulaguntzarik gabe egongo gara kultur arloko profesionalak.
J.P.: Erakundeek titular pilo eman dituzte hedabideetan aurkeztu dituzten dirulaguntzekin; hala ere, ikusi ez dena da letra txikia. Horietan benetako gezurrak irakurri ahal dira...
A.A.: Gure sektorea oso gaizki araututa dago eta, horren ondorioz, jende askok ezin ditu laguntzak eskuratu, lege-hutsuneak direla eta. Era berean, kultura-aurrekontuak beste sektore batzuetara desbideratzen ari dira orain. ◀

Hirukira olgetan

SOLUZIOAK:

Engainagarriak

Zati hauetatik erdiak goiko irudi handitik hartuta daude eta beste erdiak engainariak dira, hau da, oso antzekoak izan arren, ez datoz bat irudi nagusiagaz. Identifika itzazu bost onak eta bost txarrak.

Mezua

Poto barruko erlea oso pozik dagoela ematen du.
Zer dio? Ipini iruditxo bakoitzaren azpian dagokion hizkia eta asmatuko duzu.



Zazpikoa

Buruz behera tente jartzea uste baino arriskutsuagoa da.
Hemen, esate baterako, zazpi elementu aldatu dira. Ikusten dituzu?



Getxoko entitatea zara eta Euskaraldian parte hartu nahi duzu?

Animatu eta izan gaitezen Getxoprest!

Informazio gehiagorako edota entitate moduan izena emateko sartu getxoztarrak.eus-en